



2023KO AURREKONTUAREN AZALPEN MEMORIA

1. AURREKARIAK

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Kontsortzioa (aurrerantzean, Kontsortzioa), zuzenbide publikoko erakundea da, izaera juridiko propioa duena eta hori osatzen duten Administrazio Publikoetatik bereizita dago. Halaber, jarduteko gaitasun osoa du Kontsortzioko kide diren erakunde guztien interes komunekeo jarduerak gauzatzeko, horiek guztiak beren eskumenen esparruaren barne badaude.

Ondorioz, zerbitzu publikoak sustatu, promozionatu, eman edo modu komunean kudeatzeko jarduerak egiten ditu Kontsortzioak.

Kontsortzioaren antolakuntzari, funtzionamenduari eta erregimen juridikoari dagokionez, 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarenak xedatutakoa betetzen da, bai garapeneko erkidego mailako araudian bai beren Estatutuetan.

Kontsortzioak betetzen dituen funtzio nagusiak honako hauek dira:

a) Garraio zerbitzuen eta azpiegituren plangintza:

- Gipuzkoak garraio zerbitzuen plangintza egiten eta ustiaketa programa koordinatuak ezartzen laguntzea.
- Gipuzkoako garraio azpiegituren plangintza egiten laguntzea.
- Beste esparru batzuetan eskumenak izanik, garraio zerbitzuen eta azpiegituren eremuan eragina duten jarduerak egin ditzaketen erakunde eta instituzioekin koordinatzea.
- Gipuzkoan garraio merkatu osoaren bilakaera aztertzeke behatokia ezartzea, garraio pribatuaren bilakaerari arreta berezia eskainita.
- Garraio pribatua gutxiago erabiltzeko jarduerak proposatzea.
- Gipuzkoako garraio publikoan turismoaren sektorearen sarbidea sustatzea.

b) Tarifak antolatzea:

- Gipuzkoako tarifen sistema bateratua zehaztea, baita hori aplikatu, kudeatu eta garatzea ere.
- Gipuzkoako tarifa bateratze sistemaren tarifak ezartzea.
- Tarifa bateratuaren sistemari esker lortzen diren diru-sarrerak kudeatu eta garraio operadoreen artean banatzea.
- Ikuskaritza kanpaina orokor zein zehatzak proposatu edota egitea.
- Tarifen gaineko eskumenen erabilera koordinatzea, Gipuzkoan garraio zerbitzuen jabe diren administrazioen artean.

c) Garraio sistema adimendunak koordinatu eta garatzea.



- Gipuzkoako garraio publikoaren tarifa bateratuko sistemaren ordainketa moduak kudeatzea.
- Herritarrei kontakturik gabeko (contactless) MUGI txartelera sarbidea emateko aukera kudeatzea.
- Ordainketa sisteman bilakaera teknologiko eta digitala sustatu eta garatzea.
- Gipuzkoako garraio publikoaren tarifa bateratuko sistemako ordainketa moduak kudeatzea.
- Gipuzkoako garraio publikoko operadoreen ordainketa teknologiaren bilakaera koordinatua egiten laguntzea.
- Gipuzkoako tarifa bateratuko sistemaren bidez, Euskadin garraio publikoaren interoperabilitatea sustatu eta garatzea.
- Garraio adimendun sistemen esparruan aholkularitza ematea.
- Bidaiariei informazio sistema aurreratuak sustatu eta koordinatzea.

d) Komunikazioa, erabiltzaileentzako informazioa eta sistemaren ebaluazioa:

- Gipuzkoako garraio sistema bateratuaren irudi korporatiboa ezartzea.
- Komunikazio kanpainak egitea, Gipuzkoan garraio sistemaren erabilera eta mugikortasun iraunkorra sustatzeko.
- Interoperabilitatea eta etorkizuneko mugikortasuna sustatzea informazioaren digitalizazioaren eta Gipuzkoako garraio publikoko ordainketa moduen bidez.
- Garraio erabiltzaileari informazioa ematea, informatzeko sistema integratuaren bidez, egokitzen diren bitarteko guztiak erabilita.
- Informazio esparruan aholkularitza ematea eta kontsurtzioko kide diren erakundeek zein garraio operadore gisa jarduten duten enpresek ematen duten komunikazioa koordinatzea.
- Garraioa ebaluatzea, besteak beste, herritarren mugikortasunari buruzko inkesten bitartez, eta herritarren partaidetza zein hartu-eman digitala bultzatuta.

e) Aholkularitza eta txostenak:

- Aholkularitza ematea Gipuzkoako udal erakundeei, hiri antolaketako plan orokorrak eta plangintzako beste tresna batzuk prestatzeko orduan, garraioaren plangintzarekin koherenteak ote diren aztertzeko, eta elkarren arteko egokitzapena egiteko.
- Kontsurtzioko kideei eta Gipuzkoako beste erakunde batzuei aholkularitza eskaintzea, garraio operadoreekin kontratu programak edota beste hitzarmen motaren bat prestatzeaz edo adostez.
- Kontsurtzioko kideei eta Gipuzkoako beste erakunde batzuei aholkularitza eskaintzea, garraio zerbitzuak ustiatzeko emakida administratiboak esleitzeko, aldatzeko eta indargabetzeko espedientei buruz.



- Kontsortzioko kideei eta Gipuzkoako beste erakunde batzuei aholkua eskaintzea, Gipuzkoako garraio operadoreen kontratu programa, emakida eta kudeaketa kontratuen jarraipena egiteko.
- Kontsortzioko kideei eta Gipuzkoako beste erakunde batzuei aholkularitza eskaintzea, administrazioekin, eragileekin eta garraio arloan garrantzia berezia duten beste erakunde batzuekin lankidetzarako egin daitezkeen proposamenez eta akordioez.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraioaren egoerari buruzko urteko txostena egitea.

f) Administrazioek garraio publikoko sistema finantzatzea:

- Gipuzkoako garraioa finantzatzeko ardura duten herri administrazioei garraio publikoko sistema finantzatzeko era berriei buruzko proposamenak prestatzea.

Horrez gain, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Kontsortzioak funtzio hauek bete ahal izango ditu, betiere horiek erabat garatu ondoren:

a) Garraio zerbitzuen eta azpiegituren plangintza:

- Gipuzkoako garraio zerbitzuen plangintza egitea eta ustiaketa programa koordinatuak ezartzea.
- Garraio pribatua gutxiago erabiltzeko jarduerak aplikatzea.
- Beste esparru batzuetan eskumenak izanik, garraio zerbitzuen eta azpiegituren eremuan eragina duten jarduerak egin ditzaketen erakunde eta instituzioekin koordinatzea.

b) Garraio operadore diren enpresekiko hartu-emanak:

- Gipuzkoako garraio operadoreekin programa kontratuak edo bestelako hitzarmenak prestatu edota adostea.
- Gipuzkoako garraio lineen emakida berrien edo esleipenen baldintzak prestatzea.
- Gipuzkoako garraio eragileekin egindako programa kontratuen, hitzarmenen, emakiden eta kudeaketa kontratuen jarraipena egitea.

c) Tarifak antolatzea:

- Tarifen gaineke eskumenak gauzatzea, horiek zerga, prezio publiko edo prezio pribatuko izaera eduki arren.

d) Kontsultak:

- Gipuzkoan, garraio zerbitzuen eta azpiegituren antolaketa arloan, organo aholku emailearen eginkizunak betetzea, edozein lege nahiz araudi xedapenetan edo



kontsortzioko kideekin nahiz beste herri erakunde batzuekin sinatutako hitzarmenetan esleitzen zaizkion eginkizunekin.

e) Garraio zerbitzuen kudeaketa:

- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza osatzen duten erakundeek eskumeneko jardura mota guztiak kudeatzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio zerbitzuen eta azpiegituren eremuan.

f) Etorkizuneko arau esparrua

- Kontsortzioko kideei egin beharreko proposamenak aztertu eta prestatzea, haien arau esparrua egokitzeari buruz, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak estatutu hauetan xedatutako eskuduntzak erabiltzeko aukera izan dezan, kideen eskumeneren esparruan.
- Kontsortzioko kideei proposamenak egitea horien araudi esparrua egokitzeari buruz, Gipuzkoa osoan garraio publiko kolektiboari buruzko araudia bateratzeko.

Ildo horretan, tarifa bateratuko sistema, aurrerantzean MUGI sistema, kudeatzen du Kontsortzioak, 2013ko martxoaren 4tik aurrera Gipuzkoako Lurralde Historikoan indarrean dagoena.

MUGI sistemak tarifa politika bakarra zehazten du Gipuzkoako hiri barruko autobusetarako (Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Zarautz, Arrasate, Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun, Oñati eta 2022tik Tolosa), hiri arteko autobusetarako (Lurraldebus), EUSKOTREN-FERROCARRILES VASCOS SAREN eta RENFE OPERADORAREN tren zerbitzuetarako. Hori guztia tarifa sistema bakar bati esker, MUGI txartela ordainketa euskarri gisa izanik. Halaber, sistema horrek aukera ematen du txartel bera erabiltzeko Gasteiz eta Bilboko tranbietan, Larreinetako funikularrean eta Alavabus eta Tuvisa autobusetan. 2023rako Bilboko metroan MUGI erabiltzeko eta Lurraldebusen lineetan BAT eta BARIK ere erabiltzeko interoperabilitateak ere martxan jartzea espero da, Euskadiko lurraldearen interoperabilitate guztiaren zati handi bat osatuz.

Era berean, estatutuetan eta ondorengo planetan zehaztu eta helarazitako gainerako funtzioak betetze aldera, Partzuergoa proiektuak eta koordinazio-lanak egiten ari da integratutako erakundeekin garraio publikoa erregulatzen duen araudian, ordainketa-sistemetako teknologia berriak, tarifazio integratuko sistemen eboluzioak eta eguneratzeak, garraio publikoaren plangintza integratua, hiru txartelen BAT, BARIK, MUGI interoperabilitatea EAEn, baita SMPBayonne-Adourrekin interoperabilitatea, irisgarritasun unibertsala, herritarrentzako zein MUGI sistemaren erabiltzaileentzako komunikazioa eta informazioa, ezintasunen bat duten pertsonentzako arreta, turisten mugikortasuna eta genero ikuspegia garraiobideetan ere, besteak beste.

2. 2023KO AURREKONTUAREN ILDO NAGUSIAK



2.1 GASTUEN EGOERA

2.1.1 1. KAPITULUA: LANGILE GASTUAK

1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2012ko martxoaren 26an, Kontsortzioaren Asanblada Orokorrak, ohiko bilkuran, langile zerrenda, lanpostu zerrenda, ordainsariak eta 2012ko enplegu-eskaintza publikoa onartu zituen.

2013ko ekitaldian Lanpostu Zerrendan aurreikusitako 6 lanpostutatik 5 bete ziren.

2016ko apirilaren 1ean, Asanblada Orokorrak adostu zuen Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren langile zerrenda eta lanpostu zerrenda aldatzea, 2 lanpostu amortizatuz eta beste bi sortuz.

Asanblada Orokorrak adostu zuen lanpostu horietako bat barne sustapen bidez betetzea. 2016ko azaroaren 23an amaitu zen prozesu hori.

2019ko martxoaren 11an kudeaketa orokorreko teknikariaren lanpostua bete da. Horrela LZan aurreikusitako 6 lanpostu bete ziren.

Memoria honi erantsita doaz langileen plantilla eta indarrean dagoen eta aurrekontu honek jasotzen duen lanpostuen zerrenda.

Soldata-erregimenari dagokionez, lan-erregimenaren eta estatutu-erregimenaren arteko banaketa egiten da (oinarria eta osagarriak).

Kontsortzioko langileen soldatak Asanblada Orokorrak zehazten ditu, betiere Estatuko Aurrekontuen Lege Orokorrak eta gainerako legeria aplikagarriak xedatutakoaren arabera.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea indarrean jartzeak Partzuergoen langileen araubide berria ezartzen du, eta xedatzen du bertako langileak, oro har, erakunde kideetatik etor daitezela, eta ezartzen du GGLAko langileen ordainsariek ez dituztela inola ere gaindituko atxikipen-administrazioaren baliokide diren lanpostuetarako ezarritakoak.

GGLAk eguneratzeke du lanpostuen zerrenda eta balorazioa, eta bere estatutuen 34.2 artikulua eskakizun berrira egokitu behar du. Izan ere, 40/2015 Legearen 4. paragrafoari egokitzen zaionez, ondorioztatzen du "GGLAko langileen ordainsariek ez dituztela inola ere gaindituko atxikipen-administrazioaren baliokide diren lanpostuetarako ezarritakoak, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat ezarritakoak". Horretarako, Zuzendari Nagusiak, hala badagokio, atxikipen-administrazioarekiko antolaketa- eta langile-baliokidetasunak identifikatuko ditu.

Prozesu hori GGLAren batzarrak izapidetu eta onartzeak kapitulu honetan eragina izango du, baina legeak eta atxikipen-administrazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, ezartzen dutenarekin bat etorritik, ez da aurreikusten aurrekontu honetan adierazten den zenbatekoaren igoerarik.

2.1.2- 2. KAPITULUA: GASTU ARRUNTAK

GGLAren gastu arruntak bi programa nagusitan banatuta ageri dira: alde batetik, 920 programa, Kontsortzioaren berezko funtzionamenduari buruzko gastuei dagokiona; eta bestetik, 440 programa, herritarrentzako zerbitzuak, batez ere MUGI txartelaren kudeaketak sortzen dituen gastuak.

Jarraian ageri dira xehatuta 2023ko aurrekontuko kontusail eta helburu nagusiak:

2.1.2.1.-(b funtzioa) Tarifak antolatzea: MUGI sistemaren kudeaketa

Kontsortzioaren funtzionamendu arruntari buruzko gastu finkoak, MUGI tarifa bateratuko sistema eta horren tresna nagusia, MUGI txartela kudeatzeagatik sortutako gastuak, 4 kontratu nagusitan gauzatzen dira. Gipuzkoako Tarifa Bateratua abian jartzeko esleitu ziren eta aldizka lizitazio bidez berritzen dira, jarraipena eta hobekuntza sustatzeko asmoarekin.

Horrela, lizitatzen diren zerbitzuetan hobekuntzak ezartzen dira, baita zerbitzuei etengabeko bilakaerak gehituz, ezinbestekoak sistema eguneratuta, berrituta, mantenduta eta, ticketin alorrean non bilakaera oso azkarra eta etengabekoa denez, babestuta izateko.

Gastu horiek 2023rako gastu arrunten %75 inguru dira.

2013an tarifa bateratua abian jarri zenetik, gastu horiek etengabe garatzen joan dira aldaketa nabarmenik gabe, Mugi txartelak diruz-kargatzeak dakartzan komisioen gastuak salbu, igoera garrantzitsua izan dutenak, dagokion atalean zehazten den bezala. Eta 2023an RENFERi konpentsazioa gehituko zaio, MUGIn integratzeko akordioa dela eta.

Hauek dira gastu nagusiak:

a) MUGI txartelen erosketak (pertsonalizatuak eta anonimoak).



➤ Salerosketak arrunta.



Kasu honetan, txartel pertsonalizatuen titularrak edota txartel anonimoen erosleak dira txartelen kostua ordaintzen dutenak (gaur egun, erosketa prezioa 5 euro da, BEZa barne).

Horrek ez du esan nahi kostua aurrekontuan islatu behar ez denik, Kontsortzioa baita, hain zuzen ere aurrekontu gastua (txartelen erosketa gastua) bere gain hartzen duena. Geroago, erabiltzaileek egindako ordainketari esker, aurrekontuko diru-sarrera bihurtzen da gastu hori.

COVID inpaktua gertatu zenetik, eskaeren berreskuratze motela gertatu da, ekainaren amaieran tarifen % 50eko jaitsieraren inguruan iragarri zen lege-dekretuak nabarmen bizkortu duena. Gailurra 2022aren amaierarako agortzea espero da eta, beraz, 2023rako eskaeren erritmoa motelago mantenduko dela uste da.

Gai horretarako, kontuan hartu da, baita ere, MUGI sistemaren birtualizazioa 2023an sartu izana. Birtualizazio horren heldutasunak txartel fisiko gutxiago merkaturatzea ekarriko du. Trantsizio hori hasiera batean motela izatea espero da (2023) eta aurrerago areagotu egingo da.

Txartel horiek hornitzeko, indarrean dago hornidura-kontratu bat Calmell, SA enpresarekin, 2022ko otsailaren 15etik. Kontratu horrek 48 hilabeteko epea du.

Azpimarratzekoa da, "txipen krisia" dela eta, beste sektore batzuetan ere eragiten ari den bezala, hala nola automozioan, kontakturik gabeko txartelen hornikuntzan ere eragina duela. Afekzio horrek bi eremutan eragiten du: alde batetik, hornikuntza-epeak izugarri handitzen ari dira, eta horrek stock-hausturak eragin ditzake. Bestalde, prezioek gora egiten dute. Mota horretako kontratuetan prezioak x urterako ezartzen badira ere, esleipendunek adierazten dute ezin dutela hornidura hori ezarritako prezioetan eman.

➤ Salerosketa berezia.

2014ko martxoaren 27an egindako ohiko bilkuran, Asanblada Orokorrak aho batez onartu zuen MUGI txartelak kostu prezioan saltzea kontsortzioko kide diren erakundeei eta xede sozialeko intereseko entitateei zein irabazte asmorik gabeko erakundeei.

b) BASQUECARD txartelak erostea





BASQUECARD txartelen sal-erosketa Mugi txartelaren antzeko eran kudeatzen da. Donostiako Donostia Turismo Udal Sozietatearen kasuan horretarako sinatutako hitzarmenean artikulatzen da.

Beste alde batetik, txartel jakin batzuen kasuan, Kontsortzioak bere gain hartzen du horien amaierako kostua, (i) erabiltzaileei (txartel anonimoen kasuan), edo titularrei (txartel pertsonalizatuen kasuan) egoztekoak ez diren errore edota akatsik badago, (ii) txartel sozialen kostua eta (iii) txartel kolektiboak berritzeko gastuak.

c) Eskaeren kudeaketa:

Eskaerak kudeatzeko kontratua BERALAN, SL enpresari esleitu zitzaion. 2017ko urriaren 2an jarri zen indarrean eta 48 hilabeteko iraupena du, beste 24 hilabetez luzatzeko aukerarekin.

Eskaeren kudeaketaren barne daude honako lan hauek:

- Txartel pertsonalizatuen eskaerak jaso, erregistratu, kudeatu eta horien inguruko gorabeherak konpontzea.
- Txartelaren eskabideak gorde eta banatzea.
- Txartelak banatzea.
- Txartelak saltzea.

Zerbitzu hori 24 hilabete gehiago luzatzea planifikatu da, inguruabarrek esleipendataren antzekoak izaten jarraitzen dutelako eta kontratuaren kostua garraio publikoaren erabilerekiniko proportzionala delako; beraz, GGLAri ez zaio zigor ekonomikorik ezarri COVID19. Kontratu horri aldaketa txiki bat onartu zaio, enpresaren sistemak MUGI BIRTUALaren proiektuaren sarrerara egokitzeko premia zko helburuarekin.

d) Txartelak diruz kargatzeagatik komisioak:

MUGI sistemaren kudeaketaren gastu nagusia da.

Eskura ditugun datu historikoetan oinarrituta, kargaren estimazio bat egin da. Datu horiek erakusten dute diru-kargen igoera bat egon dela MUGI sistemaren erabilera gero eta handiagoarekin urtez urte, 2020 urtera arte, COVID inpaktuaren urtea. Kasu honetan, eskatutako txartel-kopuruaren bilakaeraren ildotik, susperraldia motela baina irmoa izan da, igoera bereziarekin, EUSKOTREN operadorearen 2019ko birkarga-zifrak gaituz.

Bilakaera horri gehitu behar zaio 2022ko amaiera honetan erabiltzaileek gora egingo dutela aurreikusten dela, tarifen % 50eko jaitsieraren ondorioz, baina ziur aski 2023an eutsiko litzaioke, tarifak berriz ezarriko balira ere, edo, nolanahi ere, berrir igoko balira.



Era berean, sistema birtualizatuak ekarriko duen karga-bide berri baten aurreikuspena sartu da aurrekontuan.

Horren ondorioz, birkarga-komisioen aurreikuspena azken urteetakoen azpitik planifikatzen da, gaur egun ikusten den kurbaren arabera. Nabarmendu behar da zaila dela kurbaren bilakaera kalkulatzeko, inoiz ikusi gabeko egoera batean.

Gaur egun, txartelak diruz kargatzeko aukerak eta horrek sortzen dituen komisioak honako hauek dira:

- Salmenta egiteko eta diruz-kargatzeko puntuak: BERALAN SL enpresari esleitutako kontratuak %2,12ko komisioa ezartzen du. Kontratua 2017ko urriaren 2an jarri zen indarrean, 48 hilabeteko iraupena du eta beste 24 hilabetez luzatu daiteke. Adierazitako argudioak medio kontratua urrian luzatuko da.
- Banku kutxazainen sarea: KUTXABANK, SA enpresari 2020ko irailaren 21ean esleitutako kontratuak horrelako komisioak ezartzen ditu: %1,89ko lehenengo tarterako (3 milioi eurora arte), %0,9 (3-10 milioiko tartean) et 0,60% hirugarren tartetik aurrera (10 milioitik gora).
- EUSKOTREN autosalmenta makinen sarea: 2019ko ekainaren 14an EUSKOTRENBIDEAK-FERROCARRILES VASCOS, Saren eta Kontsortzioaren artean sinatutako hitzarmenaren arabera, Kontsortzioak bere gain hartzen ditu tarifa bateratze sistemako txartelak diruz kargatzeak sortzen dituen komisioak, hau da, EUSKOTRENEen makinetan hilero Mugi txarteletan, bere osotasunean, egin diren diru-kargen %4a ordainduko du, baita Mugi txartelen salmenten %4a ere. Kasu honetan, komisioa gaur egun indarrean dauden gainerako bideak baino handiagoa denez, eta, hain zuzen ere, igoera oso nabarmena izaten ari den bidea denez, 2023ko aurrekonturako gastua handitzea kalkulatu da kasu honetarako.
- Webgunea (Eusko Jaurlaritzaren "nire ordainketa" online zerbitzuaren bidez). Gaur egun ez dute komisiarik sortzen Partzuergoaren finantza-erakunde laguntzaileen bidez egindako eragiketek: Kutxabank, Euskadiko Kutxa, BBVA eta Sabadell Guipuzcoano. Kargatzeko aukera hori gutxiengoa da gaur egun.
- 2023ko aurrekontu honetan kontutan hartu da RENFE operadorea tarifa bateratze sistemara atxikitzearen ondorioz RENFEren makinetan Mugi txarteletan egingo diren diru-kargen komisioak. 2018ko abuztuaren 1ean RENFE eta GGLAren arteko hitzarmeneko estipulazioen arabera RENFEren autosalmentarako-makinetan egindako diru-kargen komisioa %4koa gehi BEZa izango da.
- 2023ko aurrekontu honetan, kontuan hartu da MUGI BIRTUAL proiektua martxan jarri dela. Funtzionatzen hasten denean, erabiltzaileek kargatzeko bide bat gehiago izango dute. Kasu honetan, esleitutako komisioa ondorengo tartean arabera banatzen da, kudeatutako bolumenaren arabera izango da, % 4ko gehi BEZa komisiotik abiatuta eta hortik beherako tarteekin.



- Era berean, automatikoki kargatzeko esperientzia hobetzeko beharrezkoa den ordainketa-pasabidea martxan jartzea aurreikusten da, autotopup. PSPren kontratazioa martxan dago memoria hau egiten den unean, % 2ko gehieneko lizitazio-komisioarekin.

Oso kontuan hartu behar da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunaren Departamentuak ezarri zuela txartelak diruz kargatzeak sortzen dituen komisioen BEZaren kengarritasunaren irizpidea. 2017az geroztik, komisio horietako BEZa ez da kengarria, eta beraz, kostuak gora egin du aurreko urteekin alderatuz, geroztik erakutsi den bezala.

e) Erabiltzaileentzako arreta zentroa:

MUGI sistemaren funtsezko elementua da, oro har herritarrekin eta bereziki erabiltzaileekin hartu-eman zuzena baitago. Eskaintzen diren zerbitzuak aurrez aurre (Donostiako Easo kaleko egoitzan) edo urrutitik bideratzen dira, hala nola telefono bidezko arreta, posta elektroniko bidezko arreta, Web orri edo APP sare sozialen bidezko arreta.

GUREAK MARKETING, SL enplegu gune bereziari esleitutako kontratua 2017ko azaroaren 1ean jarri zen abian eta 48 hilabeteko iraupena du, beste 24 hilabetez luzatzeko aukerarekin. Kontratu hori luzatzea aurreikusten da, erabiltzaileen arretaren eskaria ez baita jaitsi; aitzitik, eutsi egin zaio eta handitu egin da, COVID19 inpaktua gorabehera, eta baldintza ekonomikoak eta emandako zerbitzua GGLaren aldekoa dira.

f) Kontrol-gune integrala

MUGI sistemaren kontrol-gune integrala mantendu eta kudeatzeko kontratua da, Kontsортzioaren titularitatekoa dena. Kontratu horretan, honako hauek dira jarduera nagusiak:

- GGLaren azpiegitura eta zerbitzariak kudeatzea.
- GGLarentzat sistema informatikoak erabiltzea.
- GGLarentzat gordetako informazioa ustiatzea.
- MUGI sistemaren aplikazioak mantentzea

Kontrol-gune integrala esleitu zen 2020ko abenduaren 15ean INDRA SISTEMAS enpresari, 620.000 eurogatik eta 36 hilabeteko iraupena du.

g) "Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren eta Renfe viajeros Sociedad comercial estatal SAre arteko akordioa, Donostiako aldirietako aldiriko bidaiarien trenbide-garraio publikoan txartel bakarrarekin egindako bidaiak konpentsatzeko, Gipuzkoako lurralde historikoko garraio publiko kolektiboan tarifak integratzeko sistema ezartzeko".



2019ko ekainean, Renfe Viajeros Sociedad comercial Estatal S.A. operadorea Mugi sisteman sartzen hasi zen, eta bere txartelak eta tarifak Donostiako erdiguneko aldiriko sarean onartu zituen.

Akordio horrek konpentsazio-konpromiso bat ezartzen zuen, Mugi sistema integratua erabiltzen duten bidaiarien arabera, 2016ko diru-sarrerari erreferentzia eginez, bai eta zuzenketa-faktore batzuk, KPIaren, RENFERen tarifa propioen, eskaintako kilometroen arabera, eta COVID19ren ondoriozko eskariaren jaitsieraren inpaktu-zuzenketa bat ere.

Gerora sortutako zirkunstantziengatik hitzarmenari egindako aldaketa horiei beste aldaketa bat gehituko zaie, tarifak murrizteko Errege Dekretuaren eraginagatik, bai eta aurrekoaren ondorioz argitaratutako Errege Dekretuak ere. RENFEk ezartzen du tarifa integratzeko akordioa indarrean duten agintariek ez dituztela konpentsatu beharko irailetik abendura bitarteko hilabeteak, prezioen murrizketaren indarraldia, eta zenbateko hori bideratuko dute partzuergoko administrazioek neurriaren ondoriozko diru-sarreraren murrizketa jasatera.

Horregatik guztiagatik, abuztura arte aurreikusitako konpentsazioa sartu da aurrekontuan, besterik ez, orain arte negoziatutako aldaketak kontuan hartuta.

Aurrekontuan 2023an konpentsazio horretarako kalkulaturako zenbatekoa jasotzen da.

Gastuen aurrekontuaren gainerako beste gastuei dagokionez, erakundeak 2023rako dituen lan ildo estrategikoak GGLA lantzen jarraitzen du, berariazko helburu nagusiak eta aipatutako helburuak lortzeko beharrezko aurrekontua honela banatzen da :

2.1.2.2 (c funtzioa) ITS koordinazioa eta garapena

a) MUGI BIRTUALERAKO sistema zentralen garapen ebolutiboak eta egokitzapenak

Urtero bezala, MUGI sistema kudeatzeko etengabeko hobekuntza-lanak eta egokitzapenak egingo dira GGLAren sistema zentraletan.

2023rako aurreikusten da egokitzapen lanak oinarrituko direla MUGI kudeatzen duen ekosistema informatikoaren atal batzuk MUGI BIRTUALak eskaintzen dituen zerbitzu berrietara egokitzean oinarrituko direla.

b) Sistema Bateratua eta interoperabilitatea Lurraldebusera hedatzea

Operadore honekin interoperabilitatea hedatzeko aukera kontuan hartu da:

- Lurraldebus



Operadore horren integrazioaren kasuan, GGLaren kostua oso txikia da; izan ere, GGLak beharrezko hobekuntzak egin zituen bere sistema zentraletan, edozein operadore berri elkarreragingarri izateko.

2.1.2.3.-(d funtzioa) Erabiltzaileentzako komunikazioa eta informazioa

2015. urtean, harreman eredu berri bat ezartzen hasi zen, bai MUGI sistemako erabiltzaileekin, bai herritarrekin oro har, Gipuzkoako garraio publikoaren sistema sustatzeko. Komunikazio berri horren xedea da partaidetza, interakzioa eta pertsonalizazioa sustatzea, baita garraio publikoaren balioa azpimarratzea ere gipuzkoarren bizi kalitatea hobetzeko bitarteko gisa.

Hori burutzeko, GGLak urte hauetan garapenak egin ditu eta gaur egun web-orrialde plataforma bat dauka, aplikazioak, kutxazain automatikoak, kioskoak, aurrez-aurreko arreta, sare sozialak, mailing-a eta SMS bidalketak egiten ditu, horiek guztiak etengabe mantenduz eta hobetuz.

Partzuergoak 2023an zehar lan lerro horrekin jarraitu beharrean dago funtzionaltasun berriak eta gaurkotzeak eginez.

Halaber, estatutuetan markatutako ardatz honen inguruan, Gipuzkoan garraio sistema publikoaren erabilera bultzatzeko 2023an ere GGLak komunikazio-planak, kanpainak eta akzioak diseinatzen eta igortzen jarraituko du, helburu horretarako eskura dauden baliabide guztiak erabiliz, bai fisikoak bai digitalak.

Azkenik, MUGI BIRTUAL proiektua abian jarri dela jakinarazteko kanpaina bat abiarazteko partida espezifiko bat aurreikusi da, 160.000 eurokoa.

2.1.2.4.-(a funtzioa) Garraio zerbitzuen eta azpiegituren plangintza

Kontsortzioak MUGI sistema kudeatzen du. Horri esker, MUGI txartelekin sisteman bateratuko garraibide guztietan eta txartel hori ordainketa egiteko bide gisa erabiltzen den garraibideetan egindako balidazio bakoitzari buruzko informazio xedatua du eskuragarri. MUGI Sistemak, hilabete bakoitzean eremu, tarifa, deskontu, antzeko garraio aldaketa baldintzak eta deskontu progresibo berak ezartzen dituenek, horrek esan nahi du faktore horiei guztiei lotuta daudela integratutako enpresa operadoreek tarifengatik jasotzen dituzten diru sarreretan.

Kontsortzioa osatzen duten Administrazioek hori sortu zutenean zehaztutako xedeen arabera, Gipuzkoan garraibide publiko ezberdinak koordinatu eta horien plangintzaren analisia egiten jarduten du Kontsortzioak.

Plangintza horren azterketan are gehiago sakontzeko xedez, horrela garraio-zerbitzu publikoaren eskaintzan hobekuntzak eskaini eta inplementatu ahal izateko, INGARTEK S.A. enpresari kontratatu zaio zerbitzuaren mantentze-lanak egiteko, hain zuzen



garraio-sarearen eta -plangintzaren arloko plangintzako aholkularitzan aditua da. Kontratu hori 2019ko urriaren 7an hasi da, eta hiru urteko iraupena du.

2023an, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren PLANGINTZA INTEGRADOA egiten jarraitu zen, garraio publikoaren plangintza etengabe eguneratuz, partzuergoko erakundeetara joanez, Gipuzkoako LPren plangintzan egindako aldaketak monitorizatuz, besteak beste. Horretarako, memoria hau egiten ari garen egunean, zerbitzu honekin jarraitzeko beste lizitazio bat prestatzen ari gara, eta 2023ko aurrekontuan aurreikusi da.

2.1.2.5-(f funtzioa) Etorkizuneko arau esparrua: Garraioen Araudia

Bidaiariak errepidetik garraiatzeko zerbitzu publiko erregularrak bateratzeko araudia, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barne dauden gipuzkoar Administrazioen esparruan, 2015eko martxoaren 14an jarri zen indarrean. Araudi horren xedea da Gipuzkoan garraio erregularraren zerbitzu publikoa modu bateratu eta homogeneoan arautzea.

Araudi hori indarrean jarri eta araudi horren jarraipen batzordea sortzeari esker, hainbat arazo antzeman eta ikusgarri egin dira, besteak beste, irisgarritasun unibertsalaren, ezintasunen bat duten pertsonen eskubideen eta genero indarkeriaren inguruan.

Esparru horietan kontsortzioko kide diren erakundeek gara ditzaketen jarduerak bultzatu eta koordinatu nahi ditu Kontsortzioak, propioak diren baliabideekin.

Era berean, GGLAk MUGI sistema erabiltzeko baldintzak kudeatzen ditu. Sistema horrek MUGI txartelari aplikatu beharreko arau guztiak zehazten ditu.

2.1.2.6-Genero ikuspegia eta berdintasuna

Azkenik, GGLAk genero ikuspegia lantzen jarraituko du bai barne kudeaketan baita garraio publikoan, zeharkako hobekuntzak eta zuzenak proposatzen.

2.1.3 3. KAPITULUA: FINANTZA GASTUAK

Kontsortzioaren ustez beharrezkoa da aurrekontu-gastu bat esleitzea, altxortegi arazoak direla eta, epe motzeko kreditu kontu bat erabiltzean sorrarazitako interesei aurre egiteko.kontsignazio hori oso apala da.

2.1.4 4. KAPITULUA: TRANSFERENTZIA ETA DIRU LAGUNTZA ARRUNTAK



Kapitulu honetan UITP erakundeari, hots, Garraio Publikoaren Nazioarteko Elkarteari ordaindu beharreko hileroko kuota ageri da zehaztuta. Halaber, Kontsortzioaren erakunde ordezkari buruz ere ari gara.

Jarraian, Kontsortzioak parte hartzen eta parte hartzeko gonbitea jaso duen foro eta erakundeak ageri dira zerrendatuta:

- International Association of Public Transport. UITP
- Metropoli Mugikortasunaren Behatokia: Sustapen Ministerioa, eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.
- Estatuko Agintaritza eta Kontsortzioen Mahaia.
- Debabarrenako Eskualdeko Mugikortasunaren Mahaia.
- Oarsoaldeko Eskualdeko Mugikortasunaren Mahaia.
- Espainiako ITS.

Horrez gain, zenbateko apal batzuk hartu dira kontuan irabazte asmorik gabeko erakundeentzako diru laguntzek sortutako gastu posibleei aurre egiteko, edota erreklamaziorik jarriz gero, familia edo enpresei transferentziak egiteko.

Eta, bestalde, 2023rako, partida berri bat gehitu da, "Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren eta Renfe Bidaariak Sociedad Comercial Estatal S.A. sozietatearen arteko akordioari" dagokion konpentsazio ekonomikorako. Akordio horren xedea da Donostiako aldirietako trenbideko bidaia-garraio publikoan txartel bakarrarekin egindako bidaiak konpentsatzea, Donostiako aldiriko trenbide-garraio publikoan txartel bakarrarekin egindako bidaiak konpentsatzeko, Gipuzkoako lurralde historikoko garraio publiko kolektiboan tarifak integratzeko sistema ezarri ondoren. Izan ere, indarrean sartu dira GGLAko partzuergoko kideekin egindako ITG hitzarmen berriak, konpentsazio ekonomikoak ezabatzen dituztenak eta, beraz, finantzaketaren esparru juridikoa aldatzen dutenak. 10. orrialdeko g) atalean, akordio horren xehetasunak deskribatzen dira.

2.1.5. -6. KAPITULUA: INBERTSIO ERREALAK

MUGI BIRTUALA LAGUNTZA TEKNIKOKO KONTRATUAREN KONPROMISOZKO KREDITUA

2022rako aurkeztutako aurrekontuan, inbertsio gisa sartu ziren MUGI BIRTUALen proiektua garatzeko eta ezartzeko lanak, bai eta proiektua kontrolatzeko laguntza teknikoa ere. 2023an, 2023ko urterako konpromiso-kreditua aurreikusten da.



2.2 SARREREN EGOERA

Kontsortzioaren aurrekontuek zehatz-mehatz adierazten dituzte aurreikusitako diru sarrera zein gastuak, baita Kontsortzioko kide den erakunde bakoitzaren partaidetza kuota ere.

2.2.1 3. KAPITULUA: TASAK ETA BESTELAKO DIRU SARRERAK

Kontsortzioaren baliabide ekonomiko-finantzarioak dira, bere Estatutuen arabera:

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Kontsortzioak ematen dituen zerbitzuengatik kontraprestazio gisa zehaztutako tarifak, horiek zerga, prezio publiko edo prezio pribatu badira ere.

Ildo horretan, MUGI eta BASQUECARD txartelen salmentagatik lortutako diru sarrerak dira garrantzitsuenak.

Txartelen salmentak abantaila bikoitza sortzen die Kontsortzioaren kontuei. Alde batetik, txartelen erosketa ez da Kontsortzioko kide diren erakundeek ekarpenarekin erabat ordaintzen den gastu bat; aitzitik, txartelen salmentari esker ordaintzen da gastu hori.

Bestetik, BEZa aplikatzeko obligazioak BEZaren hiruhileko likidazioa egiteko aukera ematen du. Txartelaren salmenta prezioa 5€ da (BEZa BARNE), hau da, 4,132 € (BEZik GABE).

Halaber, kapitulu honetan jasotzen dira, abian den EMOBASK proiektutik aurreikusten diren diru-laguntza ekonomikoak.

2.2.2 4. KAPITULUA: EKARPEN ARRUNTAK

Ekarpen arruntei dagokienez, bi multzo handi bereizi dira, hain zuzen ere finantzatuko dute gastu motaren arabera.

Kontsortzioaren funtzionamendu arrunteko gastuak bere Estutuetan xedatutakoaren arabera finantzatuko dira.

Kontsortzioko kideek egingo dituzte Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren funtzionamendura beharrezko ekarpenak, betiere bakoitzak batzar orokorrean duen ordezkapen portzentajearen arabera.

KONTSORTZIOKO KIDE DIREN ERAKUNDEAK	BOTO KOPURUA BATZAR NAGUSIAN	BOTO PORTZENTAJEA
Gipuzkoako Foru Aldundia	450/N	% 45
Eusko Jaurlaritza	450/N	% 45%



Donostiako Udala	25x2	% 5
Irungo Udala	12	%1,231
Errenteriako Udala	8	%0,767
Eibarko Udala	5	%0,538
Zarauzko Udala	5	%0,455
Arrasateko Udala	4	%0,428
Hernaniko Udala	4	%0,399
Tolosako Udala	4	%0,387
Lasarte-Oriako Udala	2	%0,370
Oiartzungo Udala	4	%0,201
Oñatiko Udala	2	%0,224
GUZTIRA	1.000	%100

N* Kontsortzioaren Asanblada Orokorrean aipatutako kideak duen ordezkari-kopurua da "N".

Hala ere, MUGI Sistemaren funtzionamendu-gastuak modu jakin batean finantzatuko dira, ITG proiektuarekin zerikusi handia duten gastuak baitira. Adostutako portzentajeak honako hauek dira:

KONTSORTZIOKO KIDE DIREN ERAKUNDEAK	BOTO PORTZENTAJEA
Gipuzkoako Foru Aldundia	46,065%
Eusko Jaurlaritza	46,065%
Donostiako Udala	7,000%
Irungo Udala	0,471%
Errenteriako Udala	0,197%
Eibarko Udala	0,009%
Zarauzko Udala	0,073%
Arrasateko Udala	0,041%
Hernaniko Udala	0,007%
Lasarte-Oriako Udala	0,009%
Oiartzungo Udala	0,024%
Tolosako Udala	0,031%
Oñatiko Udala	0,009%
GUZTIRA	%100,000

Komeni da azpimarratzea arestian aipatutako estatutuen 30.2 b) artikulua jasotzen duela partzuergo-erakundeek Partzuergoari egin behar dizkioten ekarpen espezifikoak, partzuergoak partzuergoaren eskumeneko jarduerak kudea ditzan, tresna juridikoetan ezarriko direla, tresna horien bidez dagozkien eskumenak, transferentziak edo eskuordetzeak edo dagozkien kudeaketa-gomendioak artikulatzeko.



2.2.3 7. KAPITULUA: KAPITAL APORTAZIOAK

Inbertsioen kasuan, irizpide berberekin finantzatzeko dira, kontrakorik adostu ezean. Gastu arruntak, hau da, Partzuergoari dagozkionak, Batzar Nagusiko partaidetza-ehunekoekin eta ITGrekin finantzatzen dira, aurreko taulan oinarrituta.

Hala, 2023eko ekitaldiko gastuen eta sarreraren aurrekontuetako aurrekontu-partidak jasotzen dute aipatu berri diren irizpideak, kontsortzioko kide diren entitateek erabakiak errazago har ditzaten.

Ekarpenak egiteko moduari eta altxortegia kudeatzeko moduari dagokionez, eta kanpo finantzaketarik erabiltzea ezinezkoa denez, altxortegiko plan bat osatu da, Kontsortzioaren kutzako fluxuen arabera.

Beraz, ezinbestekoa da administrazio guztiek altxortegiko aurrekontu horretan zehaztutako epeak betetzea:

1. 3 hilabetez behin, transferentzia arruntak egitea (hiruhileko erdialdera), Kontsortzioak alde aurretik hori eskatu ondoren. Handik egun gutxitara aipatutako diru kopurua ordainduko da.
2. Kapital transferentziak egitea: alde aurretik justifikatuta egon beharko dira, hau da, Kontsortzioak alde aurretik hori eskatu beharko du, dagokion erreferentzia faktura aurkeztuz.

Azpimarratu behar da aipatutako irizpideak betetzea funtsezko baldintza dela Partzuergoa behar bezala kudeatzeko, diru-sarrera nagusiak eta ia bakarrak esan daitezkeenak ekarpen horietatik baitatoz.

2.2.4.- 8. KAPITULUA: FINANTZA AKTIBOAK

Kapitulu horren barruan dago diruzaintzako gerakina. Diruzaintzako funts likidoek, kobratzeke dauden eskubideek eta ordaintzeke dauden obligazioek osatuko dute gerakina, guztiak ere ekitaldiko abenduaren 31koak.

4/2007 Foru Arauaren arabera, gerakin hori aurrekontua, kreditu-gehikuntzak eta kreditu gehigarriak finantzatzeko baliabide bat izan daiteke.

Eluska Renedo Illarregui
Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren zuzendari nagusia



2023KO AURREKONTUAREN AZALPEN MEMORIA

1. AURREKARIAK

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Kontsortzioa (aurrerantzean, Kontsortzioa), zuzenbide publikoko erakundea da, izaera juridiko propioa duena eta hori osatzen duten Administrazio Publikoetatik bereizita dago. Halaber, jarduteko gaitasun osoa du Kontsortzioko kide diren erakunde guztien interes komunekeo jarduerak gauzatzeko, horiek guztiak beren eskumenen esparruaren barne badaude.

Ondorioz, zerbitzu publikoak sustatu, promozionatu, eman edo modu komunean kudeatzeko jarduerak egiten ditu Kontsortzioak.

Kontsortzioaren antolakuntzari, funtzionamenduari eta erregimen juridikoari dagokionez, 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarenak xedatutakoa betetzen da, bai garapeneko erkidego mailako araudian bai beren Estatutuetan.

Kontsortzioak betetzen dituen funtzio nagusiak honako hauek dira:

a) Garraio zerbitzuen eta azpiegituren plangintza:

- Gipuzkoak garraio zerbitzuen plangintza egiten eta ustiaketa programa koordinatuak ezartzen laguntzea.
- Gipuzkoako garraio azpiegituren plangintza egiten laguntzea.
- Beste esparru batzuetan eskumenak izanik, garraio zerbitzuen eta azpiegituren eremuan eragina duten jarduerak egin ditzaketen erakunde eta instituzioekin koordinatzea.
- Gipuzkoan garraio merkatu osoaren bilakaera aztertzeke behatokia ezartzea, garraio pribatuaren bilakaerari arreta berezia eskainita.
- Garraio pribatua gutxiago erabiltzeko jarduerak proposatzea.
- Gipuzkoako garraio publikoan turismoaren sektorearen sarbidea sustatzea.

b) Tarifak antolatzea:

- Gipuzkoako tarifen sistema bateratua zehaztea, baita hori aplikatu, kudeatu eta garatzea ere.
- Gipuzkoako tarifa bateratze sistemaren tarifak ezartzea.
- Tarifa bateratuaren sistemari esker lortzen diren diru-sarrerak kudeatu eta garraio operadoreen artean banatzea.
- Ikuskaritza kanpaina orokor zein zehatzak proposatu edota egitea.
- Tarifen gaineko eskumenen erabilera koordinatzea, Gipuzkoan garraio zerbitzuen jabe diren administrazioen artean.

c) Garraio sistema adimendunak koordinatu eta garatzea.



- Gipuzkoako garraio publikoaren tarifa bateratuko sistemaren ordainketa moduak kudeatzea.
- Herritarrei kontakturik gabeko (contactless) MUGI txartelera sarbidea emateko aukera kudeatzea.
- Ordainketa sisteman bilakaera teknologiko eta digitala sustatu eta garatzea.
- Gipuzkoako garraio publikoaren tarifa bateratuko sistemako ordainketa moduak kudeatzea.
- Gipuzkoako garraio publikoko operadoreen ordainketa teknologiaren bilakaera koordinatua egiten laguntzea.
- Gipuzkoako tarifa bateratuko sistemaren bidez, Euskadin garraio publikoaren interoperabilitatea sustatu eta garatzea.
- Garraio adimendun sistemen esparruan aholkularitza ematea.
- Bidaiariei informazio sistema aurreratuak sustatu eta koordinatzea.

d) Komunikazioa, erabiltzaileentzako informazioa eta sistemaren ebaluazioa:

- Gipuzkoako garraio sistema bateratuaren irudi korporatiboa ezartzea.
- Komunikazio kanpainak egitea, Gipuzkoan garraio sistemaren erabilera eta mugikortasun iraunkorra sustatzeko.
- Interoperabilitatea eta etorkizuneko mugikortasuna sustatzea informazioaren digitalizazioaren eta Gipuzkoako garraio publikoko ordainketa moduen bidez.
- Garraio erabiltzaileari informazioa ematea, informatzeko sistema integratuaren bidez, egokitzen diren bitarteko guztiak erabilita.
- Informazio esparruan aholkularitza ematea eta kontsurtzioko kide diren erakundeek zein garraio operadore gisa jarduten duten enpresek ematen duten komunikazioa koordinatzea.
- Garraioa ebaluatzea, besteak beste, herritarren mugikortasunari buruzko inkesten bitartez, eta herritarren partaidetza zein hartu-eman digitala bultzatuta.

e) Aholkularitza eta txostenak:

- Aholkularitza ematea Gipuzkoako udal erakundeei, hiri antolaketako plan orokorrak eta plangintzako beste tresna batzuk prestatzeko orduan, garraioaren plangintzarekin koherenteak ote diren aztertzeko, eta elkarren arteko egokitzapena egiteko.
- Kontsurtzioko kideei eta Gipuzkoako beste erakunde batzuei aholkularitza eskaintzea, garraio operadoreekin kontratu programak edota beste hitzarmen motaren bat prestatzeaz edo adostez.
- Kontsurtzioko kideei eta Gipuzkoako beste erakunde batzuei aholkularitza eskaintzea, garraio zerbitzuak ustiatzeko emakida administratiboak esleitzeko, aldatzeko eta indargabetzeko espedientei buruz.



- Kontsortzioko kideei eta Gipuzkoako beste erakunde batzuei aholkua eskaintzea, Gipuzkoako garraio operadoreen kontratu programa, emakida eta kudeaketa kontratuen jarraipena egiteko.
- Kontsortzioko kideei eta Gipuzkoako beste erakunde batzuei aholkularitza eskaintzea, administrazioekin, eragileekin eta garraio arloan garrantzia berezia duten beste erakunde batzuekin lankidetzarako egin daitezkeen proposamenez eta akordioez.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraioaren egoerari buruzko urteko txostena egitea.

f) Administrazioek garraio publikoko sistema finantzatzea:

- Gipuzkoako garraioa finantzatzeko ardura duten herri administrazioei garraio publikoko sistema finantzatzeko era berriei buruzko proposamenak prestatzea.

Horrez gain, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Kontsortzioak funtzio hauek bete ahal izango ditu, betiere horiek erabat garatu ondoren:

a) Garraio zerbitzuen eta azpiegituren plangintza:

- Gipuzkoako garraio zerbitzuen plangintza egitea eta ustiaketa programa koordinatuak ezartzea.
- Garraio pribatua gutxiago erabiltzeko jarduerak aplikatzea.
- Beste esparru batzuetan eskumenak izanik, garraio zerbitzuen eta azpiegituren eremuan eragina duten jarduerak egin ditzaketen erakunde eta instituzioekin koordinatzea.

b) Garraio operadore diren enpresekiko hartu-emanak:

- Gipuzkoako garraio operadoreekin programa kontratuak edo bestelako hitzarmenak prestatu edota adostea.
- Gipuzkoako garraio lineen emakida berrien edo esleipenen baldintzak prestatzea.
- Gipuzkoako garraio eragileekin egindako programa kontratuen, hitzarmenen, emakiden eta kudeaketa kontratuen jarraipena egitea.

c) Tarifak antolatzea:

- Tarifen gaineke eskumenak gauzatzea, horiek zerga, prezio publiko edo prezio pribatuko izaera eduki arren.

d) Kontsultak:

- Gipuzkoan, garraio zerbitzuen eta azpiegituren antolaketa arloan, organo aholku emailearen eginkizunak betetzea, edozein lege nahiz araudi xedapenetan edo



kontsortzioko kideekin nahiz beste herri erakunde batzuekin sinatutako hitzarmenetan esleitzen zaizkion eginkizunekin.

e) Garraio zerbitzuen kudeaketa:

- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza osatzen duten erakundeek eskumeneko jardura mota guztiak kudeatzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio zerbitzuen eta azpiegituren eremuan.

f) Etorkizuneko arau esparrua

- Kontsortzioko kideei egin beharreko proposamenak aztertu eta prestatzea, haien arau esparrua egokitzeari buruz, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak estatutu hauetan xedatutako eskuduntzak erabiltzeko aukera izan dezan, kideen eskumeneren esparruan.
- Kontsortzioko kideei proposamenak egitea horien araudi esparrua egokitzeari buruz, Gipuzkoa osoan garraio publiko kolektiboari buruzko araudia bateratzeko.

Ildo horretan, tarifa bateratuko sistema, aurrerantzean MUGI sistema, kudeatzen du Kontsortzioak, 2013ko martxoaren 4tik aurrera Gipuzkoako Lurralde Historikoan indarrean dagoena.

MUGI sistemak tarifa politika bakarra zehazten du Gipuzkoako hiri barruko autobusetarako (Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Zarautz, Arrasate, Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun, Oñati eta 2022tik Tolosa), hiri arteko autobusetarako (Lurraldebus), EUSKOTREN-FERROCARRILES VASCOS SAREN eta RENFE OPERADORAREN tren zerbitzuetarako. Hori guztia tarifa sistema bakar bati esker, MUGI txartela ordainketa euskarri gisa izanik. Halaber, sistema horrek aukera ematen du txartel bera erabiltzeko Gasteiz eta Bilboko tranbietan, Larreinetako funikularrean eta Alavabus eta Tuvisa autobusetan. 2023rako Bilboko metroan MUGI erabiltzeko eta Lurraldebusen lineetan BAT eta BARIK ere erabiltzeko interoperabilitateak ere martxan jartzea espero da, Euskadiko lurraldearen interoperabilitate guztiaren zati handi bat osatuz.

Era berean, estatutuetan eta ondorengo planetan zehaztu eta helarazitako gainerako funtzioak betetze aldera, Partzuergoa proiektuak eta koordinazio-lanak egiten ari da integratutako erakundeekin garraio publikoa erregulatzen duen araudian, ordainketa-sistemetako teknologia berriak, tarifazio integratuko sistemen eboluzioak eta eguneratzeak, garraio publikoaren plangintza integratua, hiru txartelen BAT, BARIK, MUGI interoperabilitatea EAEn, baita SMPBayonne-Adourrekin interoperabilitatea, irisgarritasun unibertsala, herritarrentzako zein MUGI sistemaren erabiltzaileentzako komunikazioa eta informazioa, ezintasunen bat duten pertsonentzako arreta, turisten mugikortasuna eta genero ikuspegia garraiobideetan ere, besteak beste.

2. 2023KO AURREKONTUAREN ILDO NAGUSIAK



2.1 GASTUEN EGOERA

2.1.1 1. KAPITULUA: LANGILE GASTUAK

1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2012ko martxoaren 26an, Kontsortzioaren Asanblada Orokorrak, ohiko bilkuran, langile zerrenda, lanpostu zerrenda, ordainsariak eta 2012ko enplegu-eskaintza publikoa onartu zituen.

2013ko ekitaldian Lanpostu Zerrendan aurreikusitako 6 lanpostutatik 5 bete ziren.

2016ko apirilaren 1ean, Asanblada Orokorrak adostu zuen Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren langile zerrenda eta lanpostu zerrenda aldatzea, 2 lanpostu amortizatuz eta beste bi sortuz.

Asanblada Orokorrak adostu zuen lanpostu horietako bat barne sustapen bidez betetzea. 2016ko azaroaren 23an amaitu zen prozesu hori.

2019ko martxoaren 11an kudeaketa orokorreko teknikariaren lanpostua bete da. Horrela LZan aurreikusitako 6 lanpostu bete ziren.

Memoria honi erantsita doaz langileen plantilla eta indarrean dagoen eta aurrekontu honek jasotzen duen lanpostuen zerrenda.

Soldata-erregimenari dagokionez, lan-erregimenaren eta estatutu-erregimenaren arteko banaketa egiten da (oinarria eta osagarriak).

Kontsortzioko langileen soldatak Asanblada Orokorrak zehazten ditu, betiere Estatuko Aurrekontuen Lege Orokorrak eta gainerako legeria aplikagarriak xedatutakoaren arabera.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea indarrean jartzeak Partzuergoen langileen araubide berria ezartzen du, eta xedatzen du bertako langileak, oro har, erakunde kideetatik etor daitezela, eta ezartzen du GGLAko langileen ordainsariei ez dituztela inola ere gaindituko atxikipen-administrazioaren baliokide diren lanpostuetarako ezarritakoak.

GGLAk eguneratzeke du lanpostuen zerrenda eta balorazioa, eta bere estatutuen 34.2 artikulua eskakizun berrira egokitu behar du. Izan ere, 40/2015 Legearen 4. paragrafoari egokitzen zaionez, ondorioztatzen du "GGLAko langileen ordainsariei ez dituztela inola ere gaindituko atxikipen-administrazioaren baliokide diren lanpostuetarako ezarritakoak, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat ezarritakoak". Horretarako, Zuzendari Nagusiak, hala badagokio, atxikipen-administrazioarekiko antolaketa- eta langile-baliokidetasunak identifikatuko ditu.

Prozesu hori GGLAren batzarrak izapidetu eta onartzeak kapitulu honetan eragina izango du, baina legeak eta atxikipen-administrazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, ezartzen dutenarekin bat etorritik, ez da aurreikusten aurrekontu honetan adierazten den zenbatekoaren igoerarik.

2.1.2- 2. KAPITULUA: GASTU ARRUNTAK

GGLAren gastu arruntak bi programa nagusitan banatuta ageri dira: alde batetik, 920 programa, Kontsortzioaren berezko funtzionamenduari buruzko gastuei dagokiona; eta bestetik, 440 programa, herritarrentzako zerbitzuak, batez ere MUGI txartelaren kudeaketak sortzen dituen gastuak.

Jarraian ageri dira xehatuta 2023ko aurrekontuko kontusail eta helburu nagusiak:

2.1.2.1.-(b funtzioa) Tarifak antolatzea: MUGI sistemaren kudeaketa

Kontsortzioaren funtzionamendu arruntari buruzko gastu finkoak, MUGI tarifa bateratuko sistema eta horren tresna nagusia, MUGI txartela kudeatzeagatik sortutako gastuak, 4 kontratu nagusitan gauzatzen dira. Gipuzkoako Tarifa Bateratua abian jartzeko esleitu ziren eta aldizka lizitazio bidez berritzen dira, jarraipena eta hobekuntza sustatzeko asmoarekin.

Horrela, lizitatzen diren zerbitzuetan hobekuntzak ezartzen dira, baita zerbitzuei etengabeko bilakaerak gehituz, ezinbestekoak sistema eguneratuta, berrituta, mantenduta eta, ticketin alorrean non bilakaera oso azkarra eta etengabekoa denez, babestuta izateko.

Gastu horiek 2023rako gastu arrunten %75 inguru dira.

2013an tarifa bateratua abian jarri zenetik, gastu horiek etengabe garatzen joan dira aldaketa nabarmenik gabe, Mugi txartelak diruz-kargatzeak dakartzan komisioen gastuak salbu, igoera garrantzitsua izan dutenak, dagokion atalean zehazten den bezala. Eta 2023an RENFERi konpentsazioa gehituko zaio, MUGIn integratzeko akordioa dela eta.

Hauek dira gastu nagusiak:

a) MUGI txartelen erosketak (pertsonalizatuak eta anonimoak).



➤ Salerosketak arrunta.



Kasu honetan, txartel pertsonalizatuen titularrak edota txartel anonimoen erosleak dira txartelen kostua ordaintzen dutenak (gaur egun, erosketa prezioa 5 euro da, BEZa barne).

Horrek ez du esan nahi kostua aurrekontuan islatu behar ez denik, Kontsortzioa baita, hain zuzen ere aurrekontu gastua (txartelen erosketa gastua) bere gain hartzen duena. Geroago, erabiltzaileek egindako ordainketari esker, aurrekontuko diru-sarrera bihurtzen da gastu hori.

COVID inpaktua gertatu zenetik, eskaeren berreskuratze motela gertatu da, ekainaren amaieran tarifen % 50eko jaitsieraren inguruan iragarri zen lege-dekretuak nabarmen bizkortu duena. Gailurra 2022aren amaierarako agortzea espero da eta, beraz, 2023rako eskaeren erritmoa motelago mantenduko dela uste da.

Gai horretarako, kontuan hartu da, baita ere, MUGI sistemaren birtualizazioa 2023an sartu izana. Birtualizazio horren heldutasunak txartel fisiko gutxiago merkaturatzea ekarriko du. Trantsizio hori hasiera batean motela izatea espero da (2023) eta aurrerago areagotu egingo da.

Txartel horiek hornitzeko, indarrean dago hornidura-kontratu bat Calmell, SA enpresarekin, 2022ko otsailaren 15etik. Kontratu horrek 48 hilabeteko epea du.

Azpimarratzekoa da, "txipen krisia" dela eta, beste sektore batzuetan ere eragiten ari den bezala, hala nola automozioan, kontakturik gabeko txartelen hornikuntzan ere eragina duela. Afekzio horrek bi eremutan eragiten du: alde batetik, hornikuntza-epeak izugarri handitzen ari dira, eta horrek stock-hausturak eragin ditzake. Bestalde, prezioek gora egiten dute. Mota horretako kontratuetan prezioak x urterako ezartzen badira ere, esleipendunek adierazten dute ezin dutela hornidura hori ezarritako prezioetan eman.

➤ Salerosketa berezia.

2014ko martxoaren 27an egindako ohiko bilkuran, Asanblada Orokorrak aho batez onartu zuen MUGI txartelak kostu prezioan saltzea kontsortzioko kide diren erakundeei eta xede sozialeko intereseko entitateei zein irabazte asmorik gabeko erakundeei.

b) BASQUECARD txartelak erostea





BASQUECARD txartelen sal-erosketa Mugi txartelaren antzeko eran kudeatzen da. Donostiako Donostia Turismo Udal Sozietatearen kasuan horretarako sinatutako hitzarmenean artikulatzen da.

Beste alde batetik, txartel jakin batzuen kasuan, Kontsortzioak bere gain hartzen du horien amaierako kostua, (i) erabiltzaileei (txartel anonimoen kasuan), edo titularrei (txartel pertsonalizatuen kasuan) egoztekoak ez diren errore edota akatsik badago, (ii) txartel sozialen kostua eta (iii) txartel kolektiboak berritzeko gastuak.

c) Eskaeren kudeaketa:

Eskaerak kudeatzeko kontratua BERALAN, SL enpresari esleitu zitzaion. 2017ko urriaren 2an jarri zen indarrean eta 48 hilabeteko iraupena du, beste 24 hilabetez luzatzeko aukerarekin.

Eskaeren kudeaketaren barne daude honako lan hauek:

- Txartel pertsonalizatuen eskaerak jaso, erregistratu, kudeatu eta horien inguruko gorabeherak konpontzea.
- Txartelaren eskabideak gorde eta banatzea.
- Txartelak banatzea.
- Txartelak saltzea.

Zerbitzu hori 24 hilabete gehiago luzatzea planifikatu da, inguruabarrek esleipendataren antzekoak izaten jarraitzen dutelako eta kontratuaren kostua garraio publikoaren erabilerearekiko proportzionala delako; beraz, GGLAri ez zaio zigor ekonomikorik ezarri COVID19. Kontratu horri aldaketa txiki bat onartu zaio, enpresaren sistemak MUGI BIRTUALaren proiektuaren sarrerara egokitzeko premia zko helburuarekin.

d) Txartelak diruz kargatzeagatik komisioak:

MUGI sistemaren kudeaketaren gastu nagusia da.

Eskura ditugun datu historikoetan oinarrituta, kargaren estimazio bat egin da. Datu horiek erakusten dute diru-kargen igoera bat egon dela MUGI sistemaren erabilera gero eta handiagoarekin urtez urte, 2020 urtera arte, COVID inpaktuaren urtea. Kasu honetan, eskatutako txartel-kopuruaren bilakaeraren ildotik, susperraldia motela baina irmoa izan da, igoera bereziarekin, EUSKOTREN operadorearen 2019ko birkarga-zifrak gaituz.

Bilakaera horri gehitu behar zaio 2022ko amaiera honetan erabiltzaileek gora egingo dutela aurreikusten dela, tarifen % 50eko jaitsieraren ondorioz, baina ziur aski 2023an eutsiko litzaioke, tarifak berriz ezarriko balira ere, edo, nolanahi ere, berrir igoko balira.



Era berean, sistema birtualizatuak ekarriko duen karga-bide berri baten aurreikuspena sartu da aurrekontuan.

Horren ondorioz, birkarga-komisioen aurreikuspena azken urteetakoen azpitik planifikatzen da, gaur egun ikusten den kurbaren arabera. Nabarmendu behar da zaila dela kurbaren bilakaera kalkulatzeko, inoiz ikusi gabeko egoera batean.

Gaur egun, txartelak diruz kargatzeko aukerak eta horrek sortzen dituen komisioak honako hauek dira:

- Salmenta egiteko eta diruz-kargatzeko puntuak: BERALAN SL enpresari esleitutako kontratuak %2,12ko komisioa ezartzen du. Kontratua 2017ko urriaren 2an jarri zen indarrean, 48 hilabeteko iraupena du eta beste 24 hilabetez luzatu daiteke. Adierazitako argudioak medio kontratua urrian luzatuko da.
- Banku kutxazainen sarea: KUTXABANK, SA enpresari 2020ko irailaren 21ean esleitutako kontratuak horrelako komisioak ezartzen ditu: %1,89ko lehenengo tarterako (3 milioi eurora arte), %0,9 (3-10 milioiko tartean) et 0,60% hirugarren tartetik aurrera (10 milioitik gora).
- EUSKOTREN autosalmenta makinen sarea: 2019ko ekainaren 14an EUSKOTRENBIDEAK-FERROCARRILES VASCOS, Saren eta Kontsortzioaren artean sinatutako hitzarmenaren arabera, Kontsortzioak bere gain hartzen ditu tarifa bateratze sistemako txartelak diruz kargatzeak sortzen dituen komisioak, hau da, EUSKOTRENe makinetan hilero Mugi txarteletan, bere osotasunean, egin diren diru-kargen %4a ordainduko du, baita Mugi txartelen salmenten %4a ere. Kasu honetan, komisioa gaur egun indarrean dauden gainerako bideak baino handiagoa denez, eta, hain zuzen ere, igoera oso nabarmena izaten ari den bidea denez, 2023ko aurrekonturako gastua handitzea kalkulatu da kasu honetarako.
- Webgunea (Eusko Jaurlaritzaren "nire ordainketa" online zerbitzuaren bidez). Gaur egun ez dute komisiarik sortzen Partzuergoaren finantza-erakunde laguntzaileen bidez egindako eragiketek: Kutxabank, Euskadiko Kutxa, BBVA eta Sabadell Guipuzcoano. Kargatzeko aukera hori gutxiengo da gaur egun.
- 2023ko aurrekontu honetan kontutan hartu da RENFE operadorea tarifa bateratze sistemara atxikitzearen ondorioz RENFEren makinetan Mugi txarteletan egingo diren diru-kargen komisioak. 2018ko abuztuaren 1ean RENFE eta GGLAren arteko hitzarmeneko estipulazioen arabera RENFEren autosalmentarako-makinetan egindako diru-kargen komisioa %4koa gehi BEZa izango da.
- 2023ko aurrekontu honetan, kontuan hartu da MUGI BIRTUAL proiektua martxan jarri dela. Funtzionatzen hasten denean, erabiltzaileek kargatzeko bide bat gehiago izango dute. Kasu honetan, esleitutako komisioa ondorengo tartean arabera banatzen da, kudeatutako bolumenaren arabera izango da, % 4ko gehi BEZa komisiotik abiatuta eta hortik beherako tarteekin.



- Era berean, automatikoki kargatzeko esperientzia hobetzeko beharrezkoa den ordainketa-pasabidea martxan jartzea aurreikusten da, autotopup. PSPren kontratazioa martxan dago memoria hau egiten den unean, % 2ko gehieneko lizitazio-komisioarekin.

Oso kontuan hartu behar da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunaren Departamentuak ezarri zuela txartelak diruz kargatzeak sortzen dituen komisioen BEZaren kengarritasunaren irizpidea. 2017az geroztik, komisio horietako BEZa ez da kengarria, eta beraz, kostuak gora egin du aurreko urteekin alderatuz, geroztik erakutsi den bezala.

e) Erabiltzaileentzako arreta zentroa:

MUGI sistemaren funtsezko elementua da, oro har herritarrekin eta bereziki erabiltzaileekin hartu-eman zuzena baitago. Eskaintzen diren zerbitzuak aurrez aurre (Donostiako Easo kaleko egoitzan) edo urrutitik bideratzen dira, hala nola telefono bidezko arreta, posta elektroniko bidezko arreta, Web orri edo APP sare sozialen bidezko arreta.

GUREAK MARKETING, SL enplegu gune bereziari esleitutako kontratua 2017ko azaroaren 1ean jarri zen abian eta 48 hilabeteko iraupena du, beste 24 hilabetez luzatzeko aukerarekin. Kontratu hori luzatzea aurreikusten da, erabiltzaileen arretaren eskaria ez baita jaitsi; aitzitik, eutsi egin zaio eta handitu egin da, COVID19 inpaktua gorabehera, eta baldintza ekonomikoak eta emandako zerbitzua GGLaren aldekoa dira.

f) Kontrol-gune integrala

MUGI sistemaren kontrol-gune integrala mantendu eta kudeatzeko kontratua da, Kontsортzioaren titularitatekoa dena. Kontratu horretan, honako hauek dira jardura nagusiak:

- GGLaren azpiegitura eta zerbitzariak kudeatzea.
- GGLarentzat sistema informatikoak erabiltzea.
- GGLarentzat gordetako informazioa ustiatzea.
- MUGI sistemaren aplikazioak mantentzea

Kontrol-gune integrala esleitu zen 2020ko abenduaren 15ean INDRA SISTEMAS enpresari, 620.000 eurogatik eta 36 hilabeteko iraupena du.

g) "Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren eta Renfe viajeros Sociedad comercial estatal SAre arteko akordioa, Donostiako aldirietako aldiriko bidaiarien trenbide-garraio publikoan txartel bakarrarekin egindako bidaiak konpentsatzeko, Gipuzkoako lurralde historikoko garraio publiko kolektiboan tarifak integratzeko sistema ezartzeko".



2019ko ekainean, Renfe Viajeros Sociedad comercial Estatal S.A. operadorea Mugi sisteman sartzen hasi zen, eta bere txartelak eta tarifak Donostiako erdiguneko aldiriko sarean onartu zituen.

Akordio horrek konpentsazio-konpromiso bat ezartzen zuen, Mugi sistema integratua erabiltzen duten bidaiarien arabera, 2016ko diru-sarrerari erreferentzia eginez, bai eta zuzenketa-faktore batzuk, KPIaren, RENFEren tarifa propioen, eskainitako kilometroen arabera, eta COVID19ren ondoriozko eskariaren jaitsieraren inpaktu-zuzenketa bat ere.

Gerora sortutako zirkunstantziengatik hitzarmenari egindako aldaketa horiei beste aldaketa bat gehituko zaie, tarifak murrizteko Errege Dekretuaren eraginagatik, bai eta aurrekoaren ondorioz argitaratutako Errege Dekretuak ere. RENFEk ezartzen du tarifa integratzeko akordioa indarrean duten agintariek ez dituztela konpentsatu beharko irailetik abendura bitarteko hilabeteak, prezioen murrizketaren indarraldia, eta zenbateko hori bideratuko dute partzuergoko administrazioek neurriaren ondoriozko diru-sarreraren murrizketa jasatera.

Horregatik guztiagatik, abuztura arte aurreikusitako konpentsazioa sartu da aurrekontuan, besterik ez, orain arte negoziatutako aldaketak kontuan hartuta.

Aurrekontuan 2023an konpentsazio horretarako kalkulaturako zenbatekoa jasotzen da.

Gastuen aurrekontuaren gainerako beste gastuei dagokionez, erakundeak 2023rako dituen lan ildo estrategikoak GGLA lantzen jarraitzen du, berariazko helburu nagusiak eta aipatutako helburuak lortzeko beharrezko aurrekontua honela banatzen da :

2.1.2.2 (c funtzioa) ITS koordinazioa eta garapena

a) MUGI BIRTUALERAKO sistema zentralen garapen ebolutiboak eta egokitzapenak

Urtero bezala, MUGI sistema kudeatzeko etengabeko hobekuntza-lanak eta egokitzapenak egingo dira GGLAren sistema zentraletan.

2023rako aurreikusten da egokitzapen lanak oinarrituko direla MUGI kudeatzen duen ekosistema informatikoaren atal batzuk MUGI BIRTUALak eskaintzen dituen zerbitzu berrietara egokitzean oinarrituko direla.

b) Sistema Bateratua eta interoperabilitatea Lurraldebusera hedatzea

Operadore honekin interoperabilitatea hedatzeko aukera kontuan hartu da:

- Lurraldebus



Operadore horren integrazioaren kasuan, GGLAren kostua oso txikia da; izan ere, GGLAk beharrezko hobekuntzak egin zituen bere sistema zentraletan, edozein operadore berri elkarreragingarri izateko.

2.1.2.3.-(d funtzioa) Erabiltzaileentzako komunikazioa eta informazioa

2015. urtean, harreman eredu berri bat ezartzen hasi zen, bai MUGI sistemako erabiltzaileekin, bai herritarrekin oro har, Gipuzkoako garraio publikoaren sistema sustatzeko. Komunikazio berri horren xedea da partaidetza, interakzioa eta pertsonalizazioa sustatzea, baita garraio publikoaren balioa azpimarratzea ere gipuzkoarren bizi kalitatea hobetzeko bitarteko gisa.

Hori burutzeko, GGLAk urte hauetan garapenak egin ditu eta gaur egun web-orrialde plataforma bat dauka, aplikazioak, kutxazain automatikoak, kioskoak, aurrez-aurreko arreta, sare sozialak, mailing-a eta SMS bidalketak egiten ditu, horiek guztiak etengabe mantenduz eta hobetuz.

Partzuergoak 2023an zehar lan lerro horrekin jarraitu beharrean dago funtzionaltasun berriak eta gaurkotzeak eginez.

Halaber, estatutuetan markatutako ardatz honen inguruan, Gipuzkoan garraio sistema publikoaren erabilera bultzatzeko 2023an ere GGLAk komunikazio-planak, kanpainak eta akzioak diseinatzen eta igortzen jarraituko du, helburu horretarako eskura dauden baliabide guztiak erabiliz, bai fisikoak bai digitalak.

Azkenik, MUGI BIRTUAL proiektua abian jarri dela jakinarazteko kanpaina bat abiarazteko partida espezifiko bat aurreikusi da, 160.000 eurokoa.

2.1.2.4.-(a funtzioa) Garraio zerbitzuen eta azpiegituren plangintza

Kontsortzioak MUGI sistema kudeatzen du. Horri esker, MUGI txartelekin sisteman bateratuko garraibide guztietan eta txartel hori ordainketa egiteko bide gisa erabiltzen den garraibideetan egindako balidazio bakoitzari buruzko informazio xedatua du eskuragarri. MUGI Sistemak, hilabete bakoitzean eremu, tarifa, deskontu, antzeko garraio aldaketa baldintzak eta deskontu progresibo berak ezartzen dituenek, horrek esan nahi du faktore horiei guztiei lotuta daudela integratutako enpresa operadoreek tarifengatik jasotzen dituzten diru sarreretan.

Kontsortzioa osatzen duten Administrazioek hori sortu zutenean zehaztutako xedeen arabera, Gipuzkoan garraibide publiko ezberdinak koordinatu eta horien plangintzaren analisia egiten jarduten du Kontsortzioak.

Plangintza horren azterketan are gehiago sakontzeko xedez, horrela garraio-zerbitzu publikoaren eskaintzan hobekuntzak eskaini eta inplementatu ahal izateko, INGARTEK S.A. enpresari kontratatu zaio zerbitzuaren mantentze-lanak egiteko, hain zuzen



garraio-sarearen eta -plangintzaren arloko plangintzako aholkularitzan aditua da. Kontratu hori 2019ko urriaren 7an hasi da, eta hiru urteko iraupena du.

2023an, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren PLANGINTZA INTEGRADOA egiten jarraitu zen, garraio publikoaren plangintza etengabe eguneratuz, partzuergoko erakundeetara joanez, Gipuzkoako LPren plangintzan egindako aldaketak monitorizatuz, besteak beste. Horretarako, memoria hau egiten ari garen egunean, zerbitzu honekin jarraitzeko beste lizitazio bat prestatzen ari gara, eta 2023ko aurrekontuan aurreikusi da.

2.1.2.5-(f funtzioa) Etorkizuneko arau esparrua: Garraioen Araudia

Bidaiariak errepidetik garraiatzeko zerbitzu publiko erregularrak bateratzeko araudia, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barne dauden gipuzkoar Administrazioen esparruan, 2015eko martxoaren 14an jarri zen indarrean. Araudi horren xedea da Gipuzkoan garraio erregularraren zerbitzu publikoa modu bateratu eta homogeneoan arautzea.

Araudi hori indarrean jarri eta araudi horren jarraipen batzordea sortzeari esker, hainbat arazo antzeman eta ikusgarri egin dira, besteak beste, irisgarritasun unibertsalaren, ezintasunen bat duten pertsonen eskubideen eta genero indarkeriaren inguruan.

Esparru horietan kontsortzioko kide diren erakundeek gara ditzaketen jarduerak bultzatu eta koordinatu nahi ditu Kontsortzioak, propioak diren baliabideekin.

Era berean, GGLAk MUGI sistema erabiltzeko baldintzak kudeatzen ditu. Sistema horrek MUGI txartelari aplikatu beharreko arau guztiak zehazten ditu.

2.1.2.6-Genero ikuspegia eta berdintasuna

Azkenik, GGLAk genero ikuspegia lantzen jarraituko du bai barne kudeaketan baita garraio publikoan, zeharkako hobekuntzak eta zuzenak proposatzen.

2.1.3 3. KAPITULUA: FINANTZA GASTUAK

Kontsortzioaren ustez beharrezkoa da aurrekontu-gastu bat esleitzea, altxortegi arazoak direla eta, epe motzeko kreditu kontu bat erabiltzean sorrarazitako interesei aurre egiteko.kontsignazio hori oso apala da.

2.1.4 4. KAPITULUA: TRANSFERENTZIA ETA DIRU LAGUNTZA ARRUNTAK



Kapitulu honetan UITP erakundeari, hots, Garraio Publikoaren Nazioarteko Elkarteari ordaindu beharreko hileroko kuota ageri da zehaztuta. Halaber, Kontsortzioaren erakunde ordezkaritzari buruz ere ari gara.

Jarraian, Kontsortzioak parte hartzen eta parte hartzeko gonbitea jaso duen foro eta erakundeak ageri dira zerrendatuta:

- International Association of Public Transport. UITP
- Metropoli Mugikortasunaren Behatokia: Sustapen Ministerioa, eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.
- Estatuko Agintaritza eta Kontsortzioen Mahaia.
- Debabarrenako Eskualdeko Mugikortasunaren Mahaia.
- Oarsoaldeko Eskualdeko Mugikortasunaren Mahaia.
- Espainiako ITS.

Horrez gain, zenbateko apal batzuk hartu dira kontuan irabazte asmorik gabeko erakundeentzako diru laguntzek sortutako gastu posibleei aurre egiteko, edota erreklamaziorik jarriz gero, familia edo enpresei transferentziak egiteko.

Eta, bestalde, 2023rako, partida berri bat gehitu da, "Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren eta Renfe Bidaariak Sociedad Comercial Estatal S.A. sozietatearen arteko akordioari" dagokion konpentsazio ekonomikorako. Akordio horren xedea da Donostiako aldirietako trenbideko bidaia-garraio publikoan txartel bakarrarekin egindako bidaiak konpentsatzea, Donostiako aldiriko trenbide-garraio publikoan txartel bakarrarekin egindako bidaiak konpentsatzeko, Gipuzkoako lurralde historikoko garraio publiko kolektiboan tarifak integratzeko sistema ezarri ondoren. Izan ere, indarrean sartu dira GGLAko partzuergoko kideekin egindako ITG hitzarmen berriak, konpentsazio ekonomikoak ezabatzen dituztenak eta, beraz, finantzaketaren esparru juridikoa aldatzen dutenak. 10. orrialdeko g) atalean, akordio horren xehetasunak deskribatzen dira.

2.1.5. -6. KAPITULUA: INBERTSIO ERREALAK

MUGI BIRTUALA LAGUNTZA TEKNIKOKO KONTRATUAREN KONPROMISOZKO KREDITUA

2022rako aurkeztutako aurrekontuan, inbertsio gisa sartu ziren MUGI BIRTUALen proiektua garatzeko eta ezartzeko lanak, bai eta proiektua kontrolatzeko laguntza teknikoa ere. 2023an, 2023ko urterako konpromiso-kreditua aurreikusten da.



2.2 SARREREN EGOERA

Kontsortzioaren aurrekontuek zehatz-mehatz adierazten dituzte aurreikusitako diru sarrera zein gastuak, baita Kontsortzioko kide den erakunde bakoitzaren partaidetza kuota ere.

2.2.1 3. KAPITULUA: TASAK ETA BESTELAKO DIRU SARRERAK

Kontsortzioaren baliabide ekonomiko-finantzarioak dira, bere Estatutuen arabera:

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Kontsortzioak ematen dituen zerbitzuengatik kontraprestazio gisa zehaztutako tarifak, horiek zerga, prezio publiko edo prezio pribatu badira ere.

Ildo horretan, MUGI eta BASQUECARD txartelen salmentagatik lortutako diru sarrerak dira garrantzitsuenak.

Txartelen salmentak abantaila bikoitza sortzen die Kontsortzioaren kontuei. Alde batetik, txartelen erosketa ez da Kontsortzioko kide diren erakundeek ekarpenarekin erabat ordaintzen den gastu bat; aitzitik, txartelen salmentari esker ordaintzen da gastu hori.

Bestetik, BEZa aplikatzeko obligazioak BEZaren hiruhileko likidazioa egiteko aukera ematen du. Txartelaren salmenta prezioa 5€ da (BEZa BARNE), hau da, 4,132 € (BEZik GABE).

Halaber, kapitulu honetan jasotzen dira, abian den EMOBASK proiektutik aurreikusten diren diru-laguntza ekonomikoak.

2.2.2 4. KAPITULUA: EKARPEN ARRUNTAK

Ekarpen arruntei dagokienez, bi multzo handi bereizi dira, hain zuzen ere finantzatuko dute gastu motaren arabera.

Kontsortzioaren funtzionamendu arrunteko gastuak bere Estutuetan xedatutakoaren arabera finantzatuko dira.

Kontsortzioko kideek egingo dituzte Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren funtzionamendura beharrezko ekarpenak, betiere bakoitzak batzar orokorrean duen ordezkapen portzentajearen arabera.

KONTSORTZIOKO KIDE DIREN ERAKUNDEAK	BOTO KOPURUA BATZAR NAGUSIAN	BOTO PORTZENTAJEA
Gipuzkoako Foru Aldundia	450/N	% 45
Eusko Jaurlaritza	450/N	% 45%



Donostiako Udala	25x2	% 5
Irungo Udala	12	%1,231
Errenteriako Udala	8	%0,767
Eibarko Udala	5	%0,538
Zarauzko Udala	5	%0,455
Arrasateko Udala	4	%0,428
Hernaniko Udala	4	%0,399
Tolosako Udala	4	%0,387
Lasarte-Oriako Udala	2	%0,370
Oiartzungo Udala	4	%0,201
Oñatiko Udala	2	%0,224
GUZTIRA	1.000	%100

N* Kontsortzioaren Asanblada Orokorrean aipatutako kideak duen ordezkari-kopurua da "N".

Hala ere, MUGI Sistemaren funtzionamendu-gastuak modu jakin batean finantzatuko dira, ITG proiektuarekin zerikusi handia duten gastuak baitira. Adostutako portzentajeak honako hauek dira:

KONTSORTZIOKO KIDE DIREN ERAKUNDEAK	BOTO PORTZENTAJEA
Gipuzkoako Foru Aldundia	46,065%
Eusko Jaurlaritza	46,065%
Donostiako Udala	7,000%
Irungo Udala	0,471%
Errenteriako Udala	0,197%
Eibarko Udala	0,009%
Zarauzko Udala	0,073%
Arrasateko Udala	0,041%
Hernaniko Udala	0,007%
Lasarte-Oriako Udala	0,009%
Oiartzungo Udala	0,024%
Tolosako Udala	0,031%
Oñatiko Udala	0,009%
GUZTIRA	%100,000

Komeni da azpimarratzea arestian aipatutako estatutuen 30.2 b) artikulua jasotzen duela partzuergo-erakundeek Partzuergoari egin behar dizkioten ekarpen espezifikoak, partzuergoak partzuergoaren eskumeneko jarduerak kudea ditzan, tresna juridikoetan ezarriko direla, tresna horien bidez dagozkien eskumenak, transferentziak edo eskuordetzeak edo dagozkien kudeaketa-gomendioak artikulatzeko.



2.2.3 7. KAPITULUA: KAPITAL APORTAZIOAK

Inbertsioen kasuan, irizpide berberekin finantzatzeko dira, kontrakorik adostu ezean. Gastu arruntak, hau da, Partzuergoari dagozkionak, Batzar Nagusiko partaidetza-ehunekoei eta ITGrekin finantzatzeko dira, aurreko taulan oinarrituta.

Hala, 2023eko ekitaldiko gastuen eta sarreraren aurrekontuetako aurrekontu-partidak jasotzen dute aipatu berri diren irizpideak, kontsortzioko kide diren entitateek erabakiak errazago har ditzaten.

Ekarpenak egiteko moduari eta altxortegia kudeatzeko moduari dagokionez, eta kanpo finantzaketarik erabiltzea ezinezkoa denez, altxortegiko plan bat osatu da, Kontsortzioaren kutzako fluxuen arabera.

Beraz, ezinbestekoa da administrazio guztiek altxortegiko aurrekontu horretan zehaztutako epeak betetzea:

1. 3 hilabetez behin, transferentzia arruntak egitea (hiruhileko erdialdera), Kontsortzioak alde aurretik hori eskatu ondoren. Handik egun gutxitara aipatutako diru kopurua ordainduko da.
2. Kapital transferentziak egitea: alde aurretik justifikatuta egon beharko dira, hau da, Kontsortzioak alde aurretik hori eskatu beharko du, dagokion erreferentzia faktura aurkeztuz.

Azpimarratu behar da aipatutako irizpideak betetzea funtsezko baldintza dela Partzuergoari behar bezala kudeatzeko, diru-sarrera nagusiak eta ia bakarrak esan daitezkeenak ekarpen horietatik baitatoz.

2.2.4.- 8. KAPITULUA: FINANTZA AKTIBOAK

Kapitulu horren barruan dago diruzaintzako gerakina. Diruzaintzako funts likidoak, kobratzeke dauden eskubideak eta ordaintzeke dauden obligazioak osatuko dute gerakina, guztiak ere ekitaldiko abenduaren 31koak.

4/2007 Foru Arauaren arabera, gerakin hori aurrekontua, kreditu-gehikuntzak eta kreditu gehigarriak finantzatzeko baliabide bat izan daiteke.

Eluska Renedo Illarregui
Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren zuzendari nagusia



GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA
AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA -

2023KO GASTUEN AURREKONTUAREN LABURPENA KAPITULUKA
RESUMEN DEL PRESUPUESTO DE GASTOS DEL 2023 POR CAPÍTULOS

KONTZEPTUAK CONCEPTOS		Zenbatekoa Importe
1	LANGILERIAREN GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	510.500
2	ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO OHIKO GASTUAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS Y ARRENDAMIENTOS	3.608.161
3	FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS	1.000
4	OHIKO DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES	1.281.614
Ohiko Eragiketak Guztira Total Operaciones Corrientes		5.401.275
6	INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	28.710
Kapitalaren Eragiketak Guztira Total Operaciones de Capital		28.710
GUZTIRA TOTAL		5.429.985



AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA -
GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA

2023 EKITALDIKO GASTUEN AURREKONTUA PARTIDAKA
PRESUPUESTO DE GASTOS EJERCICIO 2023 POR PARTIDAS

Sailkapen ekonomikoa	Aurrekontuko partidaren izendapena	Azpikontzeptua	Kontzeptua	Artikulua	Kapitulua
1	LANGILE GASTUAK				510.500
	GASTOS DE PERSONAL				
12	FUNTZIONARIOAK ETA ESTATUTARIOAK			305.000	
	FUNCIONARIOS Y ESTATUTARIOS				
120	Oinarrizko ordainketak		105.000		
	Retribuciones básicas				
12000	Funtzionarioak - Oinarrizko ordainketak	105.000,00			
	Retribuciones a funcionarios - Retribuciones básicas				
121	Ordinketa osagarriak		200.000		
	Retribuciones complementarias				
12100	Funtzionarioak - Ordainketa osagarriak	200.000,00			
	Retribuciones a funcionarios - Retribuciones complemetarias				
13	LAN KONTRATUPEKOAK			89.000	
	LABORALES				
130	Lan kontratupeko langileak		89.000		
	Laborales Plantilla				
13000	Kontratupeko langileen ordainsariak	89.000,00			
	Retribuciones al personal laboral				
16	KUOTAK, PRESTAZIOAK ETA GIZARTE-GASTUAK			116.500	
	CUOTAS PRESTACIONES Y GASTOS SOCIALES				
160	Gizarte kuotak		108.500		
	Cuotas Sociales				
16000	Gizarte aseguruak	100.000,00			
	Seguros sociales				
16009	Besterik-Geroa Elkarkidetza	8.500,00			
	Otros- Geroa Elkarkidetza				
162	Gastu sozialak		8.000		
	Gastos Sociales				
16205	Administrazioa eta finantzak - Seguruak	500,00			
	Administración y finanzas - Seguros				
16209	Administrazioa eta finantzak - Formakuntza eta lan arriskuak	7.500,00			
	Administración y finanzas - Formación y riesgos laborales				
2	GASTU ARRUNTAK ONDASUN, ZERBITZU ETA ERRENTAMENDUETAN				3.608.161
	GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS Y ARRENDAMIENTOS				
20	GASTU ARRUNTAK ONDASUN ETA ERRENTAMENDUETAN			7.000	
	GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y ARRENDAMIENTOS				
201	Eraikinak eta bestelako eraikuntzak		2.000		
	De edificios y otras construcciones				
20100	Lokalak eta azpiegiturak - Alokairua	2.000,00			
	Locales e infraestructuras - Alquiler				
204	Makineria, instalazioak eta tresneria		3.000		
	De maquinaria, instalaciones y utillaje				
20401	Informatika eta komunikazioak - Fotokopiagailuaren leasing-a	3.000,00			
	Informática y comunicaciones - Leasing fotocopiadora				
206	Informatika-programak		2.000		
	De programas informáticos				
20600	Informatika eta komunikazioak - Webgune ostalariak, domeinuak...	2.000,00			
	Informática y comunicaciones - Hosting, dominios web,...				
21	Konponketak eta artapena			43.000	
	Reparaciones y conservación				
211	Eraikinak eta bestelako eraikuntzak		3.000		
	De edificios y otras construcciones				
21100	Lokalak eta azpiegiturak - Mantentze lana	3.000,00			
	Locales e infraestructuras - Mantenimiento				
215	Informazio-prozesuetarako ekipamendua		40.000		
	Equipos para procesos de información				
21500	Mantenimiento hardware, software e ITG	40.000,00			
	Harware, software eta ITG mantenua				
22	Materialak, hornidurak eta bestelakoak			3.026.161	
	Material, suministros y otros				
220	Bulego-materiala		110.500		
	Material de oficina				
22001	ITG txartelen erosketa	55.000,00			
	Compra tarjetas ITG				
	Compromete créditos para los ejercicios				
	Hurrengo ekitaldietarako kredituak agintzen ditu				
22003	Informatika eta komunikazioak - Hw/sw	10.500,00			



Sailkapen ekonomikoa	Aurrekontuko partidaren izendapena	Azpikontzeptua	Kontzeptua	Artikulua	Kapitulua
	Informática y comunicaciones - Hw/sw				
22009	Administrazioa eta finantzak - Erosketa zentrala	45.000,00			
	Administración y finanzas - Central de compras				
221	Hornidurak		8.000		
	Suministros				
22102	Suntsikorrak eta hornidurak - Elektrizitate hornidura	8.000,00			
	Fungibles y suministros - Suministro Eléctrico				
222	Komunikazioak		45.500		
	Comunicaciones				
22201	Informatika eta komunikazioak - Telefonía	27.000,00			
	Informática y comunicaciones - Telefonía				
22204	Informatika eta komunikazioak - Posta eta mezularitza	18.500,00			
	Informática y comunicaciones - Correo y mensajería				
223	Errekargak		0		
	Recargas				
22300	Errekargak-Garraio publikoaren sustapena	0,00			
	Recargas-Fomento del transporte público				
224	Aseguru-primak		1000		
	Primas de seguros				
22401	Lokalak eta azpiegiturak - Aseguruak	1.000,00			
	Locales e infraestructura - Seguros				
226	Beste gastu batzuk		35.150		
	Otros gastos diversos				
22603	Argitalpenak, publizitatea eta iragarkiak	18.150,00			
	Publicaciones, publicidad y propaganda				
22609	Besteak: Datuak babestea	17.000,00			
	Otros: Protección de datos				
22699	Beste gastu batzuk- Erreklamazioak eta lekualdatzea	0,00			
	Otros gastos diversos-Reclamaciones y traslado				
227	Profesionalek edo enpresa espezializatuek egindako lanak		2.826.011		
	Trabajos realizados por profesionales o empresas especializadas				
22701	Ikerketak, politika eta estrategia, aholkularitza	160.000,00			
	Estudios, política y estrategia, asesoramientos técnicos				
22704	Irudia eta komunikazioa - Marka-pertsona - Biltzar eta jardunaldietara joatea	15.000,00			
	Imagen y comunicación - Marca-persona - Presencia en congresos y jornadas				
22705	Informatika eta komunikazioak - Laguntza teknikoko kanpo-zerbitzua	37.000,00			
	Informática y comunicaciones - Servicio externo asistencia técnica				
22708	Suntsikorrak eta hornidurak - Garbiketa	15.000,00			
	Fungibles y suministros - Limpieza				
22709	Komunikaziorako beste gastuak - Webgunea eta erakundearen irudia	33.100,00			
	Otros gastos de comunicación - Web e imagen corporativa				
22713	Langileen kudeaketa - Mediku-azterketak	1.100,00			
	Gestión de personal - Reconocimientos médicos				
22714	Lokalak eta azpiegiturak - Segurtasuna	1.200,00			
	Locales e infraestructuras - Seguridad				
22716	Administrazioa eta finantzak - Itzulpen-zerbitzua	5.000,00			
	Administración y Finanzas- Servicio traducción				
22799	Hobekuntza- proiektuak eta ITGko mantenua	2.558.610,90			
	Errekarga komisioak				
	Proiektuak eta tekniko-aholkularitza				
	Proyectos de mejora y mantenimiento ITG				
	Comisiones de recarga				
	Proyectos y asesoría técnica				
23	Zerbitzugatiko kalte-ordainak			2.000	
	Indemnizaciones por razón de servicio				
230	Pertsonalaren dietak, garraioa eta lekualdaketa		2.000		
	Dietas, locomoción y traslados				
23000	Erakunde-harremanak - Dieta asoziatuak (banatzeko)	2.000,00			
	Relaciones institucionales - Dietas asociadas (a distribuir)				
24	Zerbitzu berriak			530.000	
	Dotación servicios nuevos				
240	Zerbitzu berriak		530.000		
	Dotación servicios nuevos				
240000	CAU + Lurraldebus gunea (ITG zatia)	530.000,00			
	CAU + Lurraldebus gunea (Parte ITG)				
	Compromete créditos para los ejercicios				
3	FINANTZA-GASTUAK				1.000
	GASTOS FINANCIEROS				
32	EPE MOTZEKO MAILEGU ETA KREDITUEN INTERESAK			1.000	
	INTERESES DE CRÉDITOS Y PRÉSTAMOS A C/P				
325	Finantza-entitateak		1.000		
	Entidades Financieras				
32500	Interesak, kreditu-entitateekin adostutako epe motzeko kredituengatik	1.000,00			
	Intereses por crédito c/p con entidades de crédito				



Sailkapen ekonomikoa	Aurrekontuko partidaren izendapena	Azpikontzeptua	Kontzeptua	Artikulua	Kapitulua
4	TRANSFERENTZIA ETA DIRU LAGUNTZA ARRUNTAK				1.281.614
	TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES				
48	IRABAZTEKO ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEI			1.281.614	
	A INSTITUCIONES SIN FIN DE LUCRO				
480	Familiei eta enpresei		1.273.414		
	A las familias y empresas				
48000	Familiei eta enpresei	1.273.414,29			
	A las familias y empresas				
481	Irabazteko asmorik gabeko erakundeei		8.200		
	A instituciones sin fin de lucro				
48100	Erakunde-harremanak: UITP eta irabazi asmorik gabeko erakundeak	8.200,00			
	Relaciones institucionales: UITP y entidades sin ánimo de lucro				
6	INBERTSIO ERREALAK				28.710
	INVERSIONES REALES				
66	INFORMAZIO PROZESAMENDURAKO EKIPOAK			1.000	
	OTRO INMOVILIZADO MATERIAL				
662	Ibilgetuen obrak eta instalazioa		1.000		
	Obras e instalación inmovilizado				
66200	Lokalak eta azpiegiturak - Lokalaren egokitzapena	1.000,00			
	Locales e infraestructura - Acondicionamiento local				
67	IBILGETU INMATERIALA			27.710	
	INMOVILIZADO INMATERIAL				
670	Ibilgetu immateriala		27.710		
	Inmovilizado inmaterial				
67003	Administrazioa eta finantzak - Marka eta jabetza intelektual babestea	1.150,00			
	Administración y finanzas - Protección de marca y propiedad intelectual				
67005	Inversión de carácter inmaterial Adaptación tecnológica ITG	26.560,00			
	Inbertsio immateriala. ITG egokitzapen teknologikoa				
		TOTAL			5.429.985



Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza
Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa

2023KO EKITALDIAREN SARRERA AURREKONTUA KAPITULOKA
PRESUPUESTO DE INGRESOS EJERCICIO 2023 POR CAPÍTULOS

KONTZEPTUAK CONCEPTOS		Zenbatekoa Importe
3	TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK TASAS Y OTROS INGRESOS	375.000
4	TRANSFERENTZIA ETA DIRU LAGUNTZA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES	5.026.275
7	KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL	28.710
8	FINANTZA AKTIBOAK ACTIVOS FINANCIEROS	0
	TOTAL	5.429.985



AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA -
GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA

2023 EKITALDIAREN SARREREN AURREKONTUA PARTIDAKA
PRESUPUESTO DE INGRESOS EJERCICIO 2023 POR PARTIDAS

Sailkapen ekonomikoa Clasificación económica	Aurrekontuko partidaren izendapena Denominación de la partida presupuestaria	Azpikontzeptua Subconcepto	Kontzeptua Concepto	Artikulua Artículo	Kapitulua Capítulo
3	TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK TASAS Y OTROS INGRESOS				375.000,00
30	Salmentak Ventas			375.000	
300	Salmentak Ventas		375.000		
3000	Mugi txartelen salmenta Venta tarjetas Mugi	375.000			
4	TRANSFERENTZIA ETA DIRU LAGUNTZA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES				5.026.275
45	EAEkoak DE LA CAPV			2.291.689	
450	EAEko Administrazio Orokorra Administración General de la CAPV		2.291.689		
45002	Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco	2.291.689,00			
46	GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOARENAK DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA			2.291.689	
460	Foru Erakundeenak De Instituciones Forales		2.291.689		
46000	Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa	2.291.689,00			
461	Udalerrienak De Entes locales		442.896		
46101	Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián	307.398,00			
46101	Irungo Udala Ayuntamiento de Irun	40.559,00			
46101	Erretereriako udala Ayuntamiento de Erretereria	22.565,00			
46101	Eibarko udala Ayuntamiento de Eibar	12.204,00			
46101	Zarautzko udala Ayuntamiento de Zarautz	12.155,00			
46101	Arrasateko udala Ayuntamiento de Arrasate-Mondragon	10.658,00			
46101	Hernaniko udala Ayuntamiento de Hernani	9.060,00			
46101	Lasarte-Oriako udala Ayuntamiento de Lasarte-Oria	8.471,00			
46101	Oiartzungo udala Ayuntamiento de Oiartzun	5.137,00			
46101	Tolosako udala Ayuntamiento de Tolosa	9.466,00			
46101	Oñatiko udala Ayuntamiento de Oñati	5.223,00			
7	KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL				28.710
75	EAEkoak DE LA CAPV			13.205,43	
750	EAEko Administrazio Orokorra Administración General de la CAPV		13.205,43		
75002	Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco	13.205,43			
76	GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOARENAK DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA			13.205,43	
760	Foru Erakundeenak De Instituciones Forales		13.205,43		
76000	Gipuzkoako Foru Aldundia	13.205,43			



Sailkapen ekonomikoa Clasificación económica	Aurrekontuko partidaren izendapena Denominación de la partida presupuestaria	Azpikontzeptua Subconcepto	Kontzeptua Concepto	Artikulua Artículo	Kapitulua Capítulo
761	Diputación Foral de Gipuzkoa				
	Udalerrienak		2.299,42		0
	De Entes locales				
76101	Donostiako Udala	1.972,45			
	Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián				
76101	Irungo Udala	149,38			
	Ayuntamiento de Irún				
76101	Errenteriako udala	67,17			
	Ayuntamiento de Errenteria				
76101	Eibarko udala	12,44			
	Ayuntamiento de Eibar				
76101	Zarautzko udala	28,07			
	Ayuntamiento de Zarautz				
76101	Arrasateko udala	18,98			
	Ayuntamiento de Arrasate-Mondragón				
76101	Hernaniko udala	9,31			
	Ayuntamiento de Hernani				
76101	Lasarte-Oriako udala	9,31			
	Ayuntamiento de Lasarte-Oria				
76101	Oiartzungo udala	10,19			
	Ayuntamiento de Oiartzun				
76101	Tolosako udala	15,53			
	Ayuntamiento de Tolosa				
76101	Oñatiko udala	6,59			
	Ayuntamiento de Oñati				
8	FINANTZA AKTIBOAK				0
	ACTIVOS FINANCIEROS				
87	Diruzaintzako gerakina		0		
	Remanente de tesorería				
87000	Diruzaintzako gerakina	0,00			
	Remanente de tesorería				
		GUZTIRA			
		TOTAL			5.429.985

INGRESOS APROBADOS**APORTACIONES CORRIENTES PRESUPUESTO 2023 Asignando comisiones de recarga MUGI a gastos gestión ITG****APORTAZIO ARRUNTEN 2023. URTEKO AURREKONTUA MUGI errekgara komisiok ITG kudeaketa gastuei atxikituta**

Erakundea Entidad	ATTG KUDEAKETA GASTUAK GASTOS GESTIÓN ATTG	Asanblada Orokorreko % % participación en Asanblea General	ITG KUDEAKETA GASTUAK GASTOS GESTIÓN ITG	BIDAIARIEN ARABERAKO % % EN FUNCIÓN DE VIAJEROS	GUZTIRA TOTAL
Eusko Jaurlaritzza Gobierno Vasco	999.922	45,000%	1.291.766	46,065%	2.291.689
Gipuzkoako Foru Aldundia	0		0		
Diputación Foral de Gipuzkoa	999.922	45,000%	1.291.766	46,065%	2.291.689
Donostiako Udala	0		0		
Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián	111.102	5,000%	196.296	7,000%	307.398
Irungo Udala	0		0		
Ayuntamiento de Irun	27.353	1,231%	13.208	0,471%	40.559
Errenteriako udala	0		0		
Ayuntamiento de Errenteria	17.043	0,767%	5.524	0,197%	22.565
Eibarko udala	0		0		
Ayuntamiento de Eibar	11.955	0,538%	252	0,009%	12.204
Zarauzko udala	0		0		
Ayuntamiento de Zarauz	10.110	0,455%	2.047	0,073%	12.155
Arrasateko udala	0		0		
Ayuntamiento de Arrasate	9.510	0,428%	1.150	0,041%	10.658
Hernaniko udala	0		0		
Ayuntamiento de Hernani	8.866	0,399%	196	0,007%	9.060
Lasarte-Oriako udala	0		0		
Ayuntamiento de Lasarte-Oria	8.222	0,370%	252	0,009%	8.471
Oiartzungo udala	0		0		
Ayuntamiento de Oiartzun	4.466	0,201%	673	0,024%	5.137
Tolosako udala	0		0		
Ayuntamiento de Tolosa	8.599	0,387%	869	0,031%	9.466
Oñatikoudala	0		0		
Ayuntamiento de Oñati	4.977	0,224%	252	0,009%	5.225
GUZTIRA TOTAL	2.222.050	1,000	2.804.225 €	1,0000	5.026.275



Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzza
Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa

APORTACIONES DE CAPITAL PRESUPUESTO 2023

KAPITALEKO APORTAZIOAK 2023. URTEKO AURREKONTUA

Erakundea Entidad	INBERTSIOAK ATTG INVERSIONES ATTG	Asanblada Orokorreko % % participación en Asanblea General	ITG INBERTSIOAK INVERSIONES ITG	BIDAIARIEN ARABERAKO % % EN FUNCIÓN DE VIAJEROS	GUZTIRA TOTAL
Eusko Jaurilaritza Gobierno Vasco	838,04	45,000%	12.367,38	46,065%	13.205,43
Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa	838,04	45,000%	12.367,38	46,065%	13.205,43
Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián	93,12	5,000%	1.879,34	7,000%	1.972,45
Irungo Udala Ayuntamiento de Irun	22,93	1,231%	126,45	0,471%	149,38
Errenteriako udala Ayuntamiento de Errenteria	14,28	0,767%	52,89	0,197%	67,17
Eibarko udala Ayuntamiento de Eibar	10,02	0,538%	2,42	0,009%	12,44
Zarauzko udala Ayuntamiento de Zarauz	8,47	0,455%	19,60	0,073%	28,07
Arrasateko udala Ayuntamiento de Arrasate	7,97	0,428%	11,01	0,041%	18,98
Hernaniko udala Ayuntamiento de Hernani	7,43	0,399%	1,88	0,007%	9,31
Lasarte-Oriako udala Ayuntamiento de Lasarte-Oria	6,89	0,370%	2,42	0,009%	9,31
Oiartzungo udala Ayuntamiento de Oiartzun	3,74	0,201%	6,44	0,024%	10,19
Tolosako udala Ayuntamiento de Tolosa	7,21	0,387%	8,32	0,031%	15,53
Oñatiko udala Ayuntamiento de Oñati	4,17	0,224%	2,42	0,009%	6,59
GUZTIRA					
TOTAL	1.862	1,000	26.848 €	1,0000	28.710

28.710

DESGLOSE INGRESOS	
TASAS Y OTROS INGRESOS (venta tarjetas, EMOBASK...)	375.000,00
INGRESOS POR APORTACIONES	5.054.985
REMANENTE	0
TOTAL	5.429.985



CONSORCIO AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA - GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN 2023KO EKITALDIKO AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUAK

AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA- GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOAREN aurrekontua gauzatzeko Araua zehazteko, eta kontsortzioaren estatutueta 28. artikuluan xedatutakoari jarraiki, martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Finantza eta Aurrekontu Arauei buruzkoak, xedatutako araudia aplikatuko da.

1.oinarria.- AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA - GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOAREN ordainketa kredituen eta diru-sarreraren egoera, 5.429.985 eurokoa da.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren aurrekontuko gastuen egoera-orria, ordainketa-kredituei dagokienez, 5.355.925,00 eurokoa da, eta konpromiso-kredituei dagokienez, 74.060,00 eurokoa.

2. oinarria.- Gastuen kredituak aurrekontuan edo behar bezala onartutako aurrekontu-aldaketetan zehaztutako berariazko xedetarako bakarrik erabiliko dira.

I eta IV. kapitulu bitarteko aurrekontu-kredituak mugatzaileak eta lotesleak dira kapitulu eta gastu esparruaren mailan.

VI. kapituluko aurrekontu-kredituak mugatzaileak eta lotesleak dira artikuluko mailan.

3. oinarria.- 2023ko ekitaldian zehar, diruzaintzaren uneko zailtasunei aurre egiteko behar diren zorpetze-eragiketak gauzatzea erabaki daiteke, gehienez urtebeteko epean, eragiketak gauzatzeko modua edozein delarik ere.

4. oinarria.- Martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Finantza eta Aurrekontu Arauei buruzkoak, III. Tituluko Hirugarren Kapituluak xedatutakoari jarraiki, aurrekontu-kredituak aldatu ahal izango dira.

Kreditu-aldaketak onartzeko organo eskuduna Kontsortzioko Batzar Orokorra izango da.

Behin onaturik, 2023ko aurrekontu aldaketak berauetan xedatutakoaren arabera egingo dira.

5. oinarria.- Konpromiso-kredituak sortzeko eta birbanatzeko gehieneko muga.

Partzuergoaren Batzar Nagusiak, GGLaren zuzendariak proposatuta, konpromiso-kreditu berriak onartu ahal izango ditu, betiere aplikatzen diren ekitaldien kopurua 4 urtetik gorakoa ez bada, eta betiere guztizko zenbatekoak ez badu gainditzen GGLaren 2023ko aurrekontuan onartutako konpromiso-kredituen % 10.

Partzuergoaren Batzar Orokorrek, GGLaren zuzendariak proposatuta, konpromiso-kredituen arteko transferentziak onartu ahal izango ditu, bai eta urtekoak birbanatzea ere, 4 urteko



denbora-mugarekin, betiere guztizko zenbatekoak ez badu gainditzen GLAren 2023rako aurrekontuan onartutako konpromiso-kredituen % 10.

6. oinarria.- Kontsortzioaren estatutuetan xedatutakoaren arabera, obligazioak baimendu, xedatu eta aitortzeko ardura hauek izango dute:

- Zuzendari Nagusiak, obligazioaren zenbatekoa gastu-aurrekontuaren % 5a edo apalagoa bada.
- Batzar Orokorrak, obligazioaren zenbatekoa gastu-aurrekontuaren % 5a baino handiagoa bada.

7. oinarria.- Aurrekontuaren egokitzapen teknikoak.

Baimena ematen zaio GGLAren zuzendari nagusiari aurrekontuan egokitzapen teknikoak egiteko, baldin eta egokitzapen horiek beharrezkoak badira berrantolaketa administratiboen ondorioz, aurreko ekitaldian konprometitutako eta gauzatu gabeko gastuen aurrekontuari egoztearen ondorioz, baldin eta gastu horiek ez badira txertatu, edo diru-sarreraren eta gastuen kontabilitatea behar bezala egozteak badute helburu, horretarako beharrezkoak diren aurrekontu-partidak sortuz.

8. oinarria.- 2. oinarrian xedatutakoaren arabera, aldezturik onartutako gastuak ordaintzeko ordainketa-aginduak egitea, berariaz kontsignatuta badaude eta aurrekontuaren % 5a edo apalagoak badira, Kontsortzioko Zuzendari Nagusiari dagokio.

2. oinarrian xedatutakoaren arabera, aldezturik onartutako gastuak ordaintzeko ordainketa-aginduak egitea, berariaz kontsignatuta badaude eta aurrekontuaren % 5a baino handiagoak badira, Kontsortzioko Presidenteari dagokio, Zuzendari Nagusiarekin batera.

9. oinarria.- Gastuaren zenbatekoa berehala justifikatu ezin delako, ordainketa-aginduak egiten diren momentuan justifikazio-dokumentuak atxiki ezin badira, "justifikatu beharreko" gastu izaera izango dute ordainketa-agindu horiek, dagozkion aurrekontu-kredituetan aplikatzea eragotzi gabe.

"Justifikatu beharreko" ordainketa horiek justifikatzeko gehienezko epea horiek jasotzen diren momentutik bi hilabetekoa izango da.

10. oinarria.- Kontsortzioko langileek, beharrezkoa bada, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoan, xedatutako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango dute. Halaber, aipatutako dekretuko xedapen osagarriak aplikagarriak izango dira, baita kalte-ordainen zenbatekoak aldi berean berrikusten dituzten dekretuak ere.

Edonola ere, egindako joan-etorriaren txostena idatzi beharko da, eta bertan, joan-etorriaren lekua eta data, irteera eta iritsiera-ordua eta egindako kudeaketak zehaztu beharko dira. Indarrean dauden tarifak aplikatuz, dagozkion kalte-ordainaren zenbatekoa zehaztuko da dokumentu horretan.



Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza
Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa

Azken xedapena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunean jarriko dira indarrean Oinarri hauek, eta 2023ko ekitaldi ekonomikoan egongo dira indarrean, baita luzapenean ere, halakorik balego.

GGLA PARTZUERGOAREN LANTALDEA ETA LANPOSTUEN ZERREDA

Uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legeak 16. artikuluan jasotakoaren arabera, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren lantaldea eta lanpostuen zerrenda honakoak dira:

I. LANTALDEA

GOI ZUZENDARITZAKO LAN-KONTRATUKO LANGILEAK

<i>Kodea</i>	<i>Plazaren izena</i>
1	Zuzendari Nagusia

FUNTZIONARIENTZAT GORDETA KO PLAZAK

<i>Kodea</i>	<i>Lanpostuaren izena</i>	<i>Oharrak</i>
2	LEGELARIA	BITARTEKO FUNTZIONARIOAREKIN BETETA
3	PLANIFIKAZIO ETA MUGIKORTASUN TEKNIKARIA	JABETZAN
4	EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO KUDEAKETA TEKNIKARIA	BITARTEKO FUNTZIONARIOAREKIN BETETA
6	ADMINISTRARI OROKORRA	BITARTEKO FUNTZIONARIOAREKIN BETETA
8	TEKNIKARIA	JABETZAN
8	TEKNIKARIA	JABETZAN

II. LANPOSTUEN ZERRENDA

GOI ZUZENDARITZAKO LAN KONTRATUDUN LANGILEAK

Ord.	Izena	kopurua	HE
1	Zuzendari Nagusia	1	3

FUNTZIONARIOEI GORDETAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

Ord.	Izena	Postu Kop.	lanpos. maila. Osagarria	Berariazko osagarria	Dedikazioa	Mendekotatusuna.	HE	Derrig. data	Egoera	Titulazioa	Taldea
1	LEGELARIA	1	26	23.440,19€	100	Zuzendaritza	4	30/06/11	BITARTEKO FUNTZIONARIOA	Zuzenbidea	A1
2	PLANIFIKAZIO ETA MUGIKORTASUN TEKNIKARIA	1	26	27.424,17€	100	Zuzendaritza	4	31/12/12	JABETZAN	Goi lizentziatura	A1
3	EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO KUDEAKETA TEKNIKARIA	1	26	21.432,57€	100	Zuzendaritza	4	31/12/12	BITARTEKO FUNTZIONARIOA	Goi lizentziatura	A1
4	Administrari Orokorra	1	18	18.309,24€	100	Zuzendaritza	3	31/12/12	BITARTEKO FUNTZIONARIOA	Batxilergoa edo baliokidea	C1
5	ERDI MAILAKO TEKNIKARIA	1	24	19.558,46€	100	Zuzendaritza	3	01/04/16	JABETZAN	Diplomatura edo baliokidea	A2
6	ERDI MAILAKO TEKNIKARIA	1	24	19.558,46	100	Zuzendaritza	3	01/04/2016	JABETZAN	Diplomatura edo baliokidea	A2